# JAKINGARRIAK

DOKUMENTAZIO ZENTRUA 0-7 urte – IRAKASLE ESKOLA – Eskoriatza




# ARTEAREN HEZKUNTZA

## 26. ZENBAKIA

1993ko Iraila

# jakingarriak

Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokatuta dagoen Dokumentazio Zentruko informazio-tresna da.

Dokumentazio Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu ditugun baliabideak honako irizpide hauen araberakoak dira:

- ❒ Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- ❒ Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak.
- ❒ Komunikaziorako eta elkarrekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Nahiz eta Dokumentazio Zentruaren esparrua 0-7 urte bitartekoa izan, badu adin honen mugetatik ateratzen den arlo bat, hizkuntzaren didaktikarena hain zuzen.

"JAKINGARRIAK" aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- ○ Liburutegi-zerbitzua: zerbitzu honen bidez liburuen mailegua egin daiteke.
- ○ Fotokopiak: artikulu, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.

*Argitaratzailea:* Eskoriatzako Irakasle Eskola
*Laguntzailea:* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
*Erredakzioa:* Eskoriatzako Irakasle Eskola
20540 Eskoriatza
Tfnoa: 714157
Faxa: 714032
*Zuzendaritza:* Nerea Alzola eta Mariam Bilbatua
*Azala:* Beatriz Arregi
*Maketazioa:* Marisa Pagonabarraga
L.G.: SS-981/92

# AURKIBIDEA:

**Berri bibliografikoak**

- Liburu berrien albisteak ........ 4. orr.
- Aldizkarietako zenbait artikuluren erreferentzia laburrak ........ 6. orr.

**Gai monografikoa: Artearen Hezkuntza**

"Gaiaren aurkezpena" ........ 21. orr.

GENUA Enkarni: "Artearen hezkuntza jorratzeko beste ikusmolde bat" ........ 22. orr.

ADRADA Zuriñe: "Eta zentzumenei buruz hitzegiten badugu?" ........ 26. orr.

ADRADA Zuriñe: "Metodologia pixka bat" ........ 29. orr.

IKERTZE:

ADRADA Zuriñe: "Eta zer da, ba, Ikertze? ........ 31. orr.

IKERTZE ETA "ARTENIÑO" LABORATEGIAK:

ARANGUREN J.J.: "Laborategi bisuala" ........ 33. orr.

MANCISIDOR Luchy: "Musikaren eta haurraren 'lehena eta oraina'" ........ 37. orr.

LOPEZ DE LANDATXU C., EIZAGUIRRE I., MANCISIDOR L.:
"Laborategi ozen-musikala" ........ 40. orr.

GENUA Enkarni: "Dramatizazioa edo rol-jolasak. Jolas sinbolikoa.
Jolas dramatikoa" ........ 42. orr.

ELIZAGARATE N., GENUA E.: "Adierazpen dramatikoaren laborategia" . 45.orr.

MURIEL Susi: "Ikuspegi pedagogikoaren nagusitasuna" ........ 47. orr.

BIBLIOGRAFIA:

Irudiei buruzkoa ........ 49. orr.

Adierazpen dramatikoari buruzkoa ........ 51. orr.

Musikari buruzkoa ........ 52. orr.

**Baliabideak**

........ 54. orr.

# liburu berrien albisteak

**J.P. Bronckart , D.Bain, I.Plazaola.eta beste batzuk**
"Hizkuntzaren psikopedagogia"
Testu motak, funtzionamendua eta didaktika
Labayru ikastegia Bilbo 1990

**I.Idiazabal, J.P. Bronckart eta beste batzuk**
"Pedagogía del texto . Testuaren pedagogía"
Labayru ikastegia Bilbo 1992







Oinarrizko curriculum diseinuan hizkuntza arloari ematen zaion tratamenduak ikuspegi aldaketa garrantsitzu bat dakar: hizkuntzari buruzko erreflexioa, arloaren helburua eta ardatza izatetik, komunikazioa helburu bezala eta erabilera ardatz bezala edukitzera pasatu da.

Aldaketa honen arrazoi nagusiak :

. Hizkuntzaren irakaskuntzak eduki duen arrakasta txikia haurren gaitasun komunikatiboa hobetzeko .

. Eginkizun komunikatibo errealetan oinarrituz, komunikazioa zer den azaltzeko hizkuntzalaritzak sortu dituen modelo teorikoen ekarpena. Ondorioz, hizkuntzaren didaktikak orain arte ikutzen ez zituen arloak bereganatu ditu eta, bestalde, hizkuntzaren funtzionamendua bere konplexutasun osoz aztertzea eskatzen du.

Euskararen normalizazioaren ikuspegitik , curriculum berriak perspektiba hau bereganatzea erabaki positiboa izan da gure ustez, erabilera esparruak zabaltzeaz gain komunikazioaren egoeraren aniztasunari erantzutea ahalbideratzen duelako.

Hala ere, gelako eguneroko lana modelo honetan oinarritzeak hainbat oztopo gainditzea eskatuko die irakasleei:

- Komunikazioa zer den azaltzeko sortu diren eredu teorikoen artean ez dagoelako bat bera ere komunikazioaren alderdi guztiak kontuan hartzen dituenik.

- Komunikazioan gertatzen diren fenomenoak deskribatzeko ereduak beste hizkuntzen inguruan egin direlako, euskal hizkuntzari egokitzapen ahalegin bat egin behar delarik.

- Eredu hauek ez direlako sortu eskolako praktikari begira. Oztopo hauek gainditzeko, irakasleentzat baliogarrioak izan daitezkeen aportazioak jasotzen dituzte aztertuko ditugun bi liburu hauek; horregatik, liburu bietan agertzen diren edukiak batera aztertuko ditugu, gure azalpenaren ardatza oztopoak deskribatzeko egin dugun alderantzizko ibilbidea izango delarik.

Adin desberdinetako haurrekin egindako esperientzien deskribapena azaltzen duten bi autoreen lanak aipatuko dugu lehenengoz:

Rosa Maria Aranok "Testu pedagogia eskolaurrean : Testu monologalak" deituriko artikuluan, Hondarribiko Txingudi ikastolan esperimentatzen ari den proposamen didaktikoa azaltzen du. Testu monogalak eta dialogalen

artean egindako bereizketa erabili dute arloaren edukiak antolatzeko . Haur-eskolan testu monogalak lantzeko beharra azpimarratzen du autoreak, eta testu mota honek lantzeko erabilitako metododologia aztertu.

Matilde Sainzek erdi zikloko haurrekin burututako esperientzia baten berri ematen du : "Ama-hizkuntzaren programaketa OHOko Erdiko zikloan: Testu-pedagogiaren proposamen bat". Adin hontako haurrek testu desberdinei buruz dituzten aurreritzi zein errakuntzak hartzen ditu abiapuntutzat sekuentzia didaktikoa antolatzeko.

Sekuentzia didaktikoen inguruan , Ginebran egindako ikerketa baten berri ematen du Joaquim Dolzek, berak idatzitako bi kapituluetan: "Dos concepciones de secuencia didáctica aplicadas a la redacción". "El relato en la escuela . Aprender a escribir sobre la historia". Ikerketa honetan testu mota bera lantzeko irakaskuntza-ikaskuntzari prozesuei buruzko ikuspegi desberdinetan oinarritutako bi proposamen didaktiko diseinatu eta gelara eraman zituen.

Ikerketaren diseinua eta emaitzak azaltzeaz gain, testu narratiboa karakterizatzeko erizpideekin batera testu hauek lantzeko eman beharreko pausuak (Sekuentzia didaktikoa) azaltzen ditu.

Ondoren azaltzen diren artikuloek euskal testuak dituzte aztergai: zenbait aldizkarietatik jasotako argudiozko testuak aztertzen ditu Luis Mari Larringanek "Zenbait argudio-testu euskaraz,azterketa eta Didaktikarako ohar batzuk" Jasotako datuetan oinarrituz, testu mota honetako faseak aztertzen ditu eta baita fase bakoitzaren antolatzaileak ere.

Hainbat unibertsitariok idatzitako argudiozko testuak ere aztertzen ditu autore berak "Argudio-bidezko testuen ebaluaketa" deituriko artikuloan, eta testu hauetan aurkitutako akatsen deskribapenetik abiatuz testuak zuzentzeko eta lantzeko zenbait ondorio didaktiko azaltzen ditu .

Itziar Plazaolak Ginebrako taldeak sortutako eredua jarraituz Euskal ipuinetan aurkitutako berezitasunak azatertzen ditu, eredu bera jarraitzen dutelarik Antton Kaifer eta Izortze del Valle, Euskar H1 bazala duten haurrek batetik eta H2 bezala dutenek bestetik, euskaraz idatzitako ipuinak aztertzerakoan.

" Euskal testuen tipologiaz: azterketarako galbahe eta lehenengo analisi estatiskoak" eta "Testu azterketarako ezaugarri galbahea. Euskal testuen tipologia eta azterketarako metodologia: "bi kapitulu hauetan euskal testu mota desberdinen ezaugarriak ezagutzeko egin diren bi ikerketa garrantzitsuren berri ematen da. Biek perspektiba diskurtsibo batetik euskal testuen funtzionamendura hurbiltzea ahalbideratzen dute eta autoreen erreflexio esplizitoa egon ez arren, hizkuntzaren irakaskuntzari begira testuen azterketa zein lanketarako erizpideak ematen dituzte.

Orain arte aztertu ditugun kapitulok, ikuspegi diskurtsibo batetan oinarritutako maila desberdinetako aplikapenak ezagutzea ahalbideratzeaz gain, irakasleek edo eta ikerlariek maila bakoitzean jarrai ditzaketen bideak ere argitzen dituzte, eredu beraren nondik norakoak ere aipatzen direlarik,azkenik.

Ikuspegi hau osatzen dute J.P. Bronckartek idatzitako artikuloek: "Quelques détérminants de la production des marques temporelles".

"Perspectivas y límites de una diversificación de la enseñanza de la lengua materna" Lehenengoan, ikerketa baten emaitzak azaltzeaz batera, hizkuntz funtzionamendua azaltzeko berak erabiltzen duen eredua aztertzen du. Bigarrenean, hizkuntzaren irakaskuntzan garrantzi handia duen gai batetaz arduratzen da: aniztasunarena.

Hizkuntzaren irakaskuntzak ezin du ahaztu ikasleen aniztasuna eta hizkuntza erabileraren aniztasuna, lan honetarako baliogarrriak izan daitezkeen erizpideak azaltzen ditu autoreak : ze testuak, nola aukeratu . Erizpide hauen azalpenarekin batera gai honi erantzuteko gaur egun dauden oztopoak ere azpimarratzen dituelarik, bai eskolaren egiturari dagozkienak eta baita teoriaren garapenari dagozkienak ere.

Komentario honen hasieran azpimarratzen nituen ikuspegi honen aportazioak hizkuntzaren normalizazio prozesuari begira, eta, halaber, aportazio hauek euskarari egokitzeko eginbeharrak: liburu hauetan aurkezten diren lanak euskararen irakaskuntzan metodologia propio bat eratzeko ematen ari diren pausuen adierazpena dira.

Hizkuntzaren normalkuntza prozesuan irakaskuntzaren papera azpimarratzen duen hezkuntz sistemak ezin du prozesu berak "irakaskuntzan dituen eraginak ezagutu gabe eta menderatu gabe irakaskuntza seriorik edo kalitatezkorik egin" Itziar Idiazabalek bere artikuloan planteatzen duen arazoari erantzuten dion edozein curriculumak, normalizaziori zuzendutako helburu eta edukiak jaso behar lituzke, bere artikuloan proposamen konkreto bat azaltzen duelarik.

# aldizkariak

## PERSPECTIVA ESCOLAR

**PERSPECTIVA ESCOLAR 168, octubre 1992**




**Monografikoa:** "L'infant malalt", 2-42 orr.
Gaisotasuna, haurraren garapen psiko-sozialaren elementu antolatzaile bat da. Fisikoki eragiteaz gain, garapenean ere desoreka ekar dezake. Gurasoek eta irakasleek hartzen duten jarrera, haurraren orekarako oso garrantzitsua da.

**LLORENS, J.:** "El nen malalt", 2-8 orr.

**BACARDI, R.:** "L'infant malalt a casa", 9-14 orr.

**BATZU:** "L'escola i el nen amb malaltia oncològica", 15-28 orr.

**MESTRES DE L'HOSPITAL DE SANT JOAN DE DEU:** "Les aules hospitalàries: Experiencia de l'Hospital de Sant Joan de Déu.", 29-35 orr.

**DENIA, J.:**"Ajuda pràctica als infants i a les famílies", 36-40 orr.

**BIBLIOTECA ROSA SENSAT:** "Bibliografia sobre el nen malalt", 41-42 ARCA, M: "Fabricar coneixements a l'escola: idees i experiències sobre els éssers vius", 45-48 orr.
4 urteko haurrekin egindako esperientzia batek, adin hauetako haurrek beren gorputzaz eta bizitzaren mugimenduaren eta hazkundearen arrazoiez hitzegiteko interesa daukatela erakusten digu.

**FIGUERAS, C.:**"Educació infantil i currículum", 59-63 orr.
Curriculumaren antolaketari buruzko erreflexio batek, irakaslegoak, ziklo bakoitzeko edukinak, helburu didaktikoak eta aprendizaien antolaketa egiterako orduan lan garrantzitsua daukala erakusten du.

**PERSPECTIVA ESCOLAR 169, novembre 1992**




**Equip de Parvulari del C.P.GORGS:** "Una gallina ponedora al parvulari.Relat d'una experiència", 41-45 orr.
Esperientzia honek, interes gune bezala, denboraldi batean gelan biziko den oilua dauka. Haurren artean sortuko duen motibazioak eta miresgarritasunak ahazteko zailak izango diren aprendizaia batzuk lortzea erreztuko du.

**PERSPECTIVA ESCOLAR 170, desembre 1992**

**FONTCUBERTA, M.:**"Escola i mitjans de comunicació", 10-14.

Eskola eta komunikabideak munduaz jabetzeko bi era erakusten dute eta helburu berberak dauzkate: errealitatearen konplexutasuna erakustea eta errealitate hau aztertu, ezagutu eta hedatzeko era desberdinak eskeintzea.




**PEREZ DE LARA, N.**:"El paper de la familia", 22-28 orr.
Familien aniztasuna, eskolak ezagutu eta onartu behar duen errealitatea da.

**SOLE, I.**:"Aprenentatge, educació i formació global de la persona", 29-36 orr.
Eskola, ikasleen gaitasun kognitiboez ezezik autokontzeptua dela medio oreka pertsonalaren gaitasunaz eta besteekiko harremanez ere arduratu behar da, honek errendimendu akademikoan eragiten duelarik.

**PERSPECTIVA ESCOLAR 173, març 1993**

**Equip de Mestres C.P. BARRUFET**: "L'autoavaluació", 41-47 orr.
Autoebaluaketa da ikastetxe honetako proiektu pedagogikoaren elementurik garrantzitsuena. Artikulu honetan ikastetxearen hainbat helburu eta exenplu praktiko azaltzen dizkigu.




**PERSPECTIVA ESCOLAR 171, gener 1993**

**TORRES, M.**:"En defensa del dibuix", 2-8 orr.
Marrazkia, ez bakarrik entretenimendu bezala, baizik eta aprendizai bezala erabilita, hezkuntzari falta zaizkion ariketa mentalak eskeiniko lizkioke. Hezkuntz artistikoa, zientifikoa osatzen du.




**JUANOLA, R.**:"El pèl de l'emperador i la ploma del pollastre, o com practicar l'art del dibuix realista", 15-20 orr.
Marrazten jakiteko, begiratzen eta ikusten jakin behar da... Marrazten eraskutsi behar da....

**BIBLIOTECA ROSA SENSAT**: "Bibliografia sobre dibuix", 31-33 orr.

## L'ECOLE MATERNELLE

**L'ECOLE MATERNELLE 5, 1993ko urtarrila**

· Jolasa
**BATZU**: "L'enfant collecteur et acquéreur de jouets", 25-26 orr.




· Psikomotrizitatea.
**COQUAT, M.**:"Atelier de motricité:aménagement d'un dortoir", 27-28 orr.

· Haur liburua
**MARTY-MINIERE, J.**:"Est-ce un sorcier/est-ce une sorcière?", 29-30 orr.

**FOLCH, T., GARCIA, M.**:"Le carnaval des fleurs", 33-34 orr.

· Esperientzia arloa/Teknologia
**CHAMBRON-MACLET, F.**:"Biologie animale:un élevage d'artemias", 35-36 orr.

**CHARASSE, C.**:“Technologie.Primer objet technique:la pendule”, 37-38

· Jolasa
**BELLEVENUE, C.**:“Des jeux pour s’amuser”, 41-42 orr.

· Soinketa
**LEFEVRE, F.**:“Action avec le petit matériel: lancer”, 43-44 orr.

· Musika
**GALLEN GAY-PERRET, B.**:“Développer l’acuité auditive”, 45-46 orr.

· Matematika
**HEUDE, F.**:“Explorer mathématiquement un monument:un exemple, la Pyramide du Louvre”, 47-48 orr.

**L’ÉCOLE MATERNELLE 6, 1993ko otsaila**




· Jolasa
**AVILES, D., GUARDIOLA, M.H.**:“L’enfant créateur de jouets”, 25-26 orr.

· Irakurketa
**MARTY-MINIERE, J.**:“Est-ce qu’on lit au pays des corbeaux?”, 27-28 orr.

· Sentzu-Hezkuntza
**MOUCHEL, S.**:“Emballages des produits de consommation courante:lenture sur les emballages”, 29-30 orr.

**BELLEVENUE, CH.**:“Des jeux de perception en petite section”, 53-54 orr.

· Haur Liburua
**FOLCH, T.**:“Zoo surprise”, 33-34 orr.

· Ingurunearen-ezagutza
**CHAMBRON-MACLET, F.**:“La locomotion du chien”, 35-36 orr.

· Musika
**GALLEN, B.**:“Développer l’acuité auditive (suite)”, 39-40 orr.

· Soinketa
**LEFEVRE, F.**:“Action avec le petit matérial:porter”, 41-42 orr.

· Matematika
**HEUDE, F.**:“Explorer mathématiquement un monument:un exemple, la Pyramide de Louvre (2)”, 43-44 orr.

· Teknologia
**CHARASSE, C.**:“Objet technique:la pendule (suite)”, 45-46 orr.

**L’ÉCOLE MATERNELLE 8, 1993ko apirila**




**GARRIGUE, P.**:“La préscolarisation en Europe: situation et tendances”, 7-11 orr.

· Plastika
**LAFFONT, J.P.**:“Communication/cuisine at arts plastiques (2)” 33-34 orr.

· Irakurketa-Idazketa
**DANAMALC, J.**:“Peinture-Écriture”, 25-32 orr.

**MARTY-MINIERE, J**:“Connais-tu cette écriture?”, 35-36 orr.

**FOLCH, T., GARCIA, M.**:“Fleurs surprise”, 41-42 orr.

**HANSEL, N.**:“Ecrire une recette de cuisine”, 45-46 orr.

**CALAMAND, M.C.**:“Les chatons barbouilleurs ou l’utilisation de l’écrit pour une activité peinture”, 49-50 orr.

· Zentzu-hezkuntza
**MOUCHEL, S.**:“Emballage-déballage (VIII):le mail art”, 37-38 orr.

· Soinketa
**LEFEVRE, F.**:"Action avec le petit matériel:Rouler... eta faire rouler", 47-48 orr.

· Matematika
HEUDE, F.:"Un paysage de produits cartésiens", 51-52 orr.

· Teknologia / Ingurune-Hezkuntza
**CHAMBRON-MACLET, M.F.**:"La locomotion du chien.Evaluation individuelle dans une situation de transfert", 43-44 orr.

**CHARASSE, C.**:"Un objet technique qui est également instrument de musique:la flûte à bec", 53-54 orr.

· Haur Liburua
**BELLEVENUE, C.**:"Des jeux avec des albums", 59-60 orr.

## INFANCIA

**INFANCIA 16, 1992ko azaroa-abendua**




**MEDINA, A.**:"El folklore en la infancia", 4-7 orr.
Haur txikiak folklorearen sail ezberdinak erabil ditzake: abestiak, jolasak, ipuinak....

**FERRERO, T.**:"El Rastrillo", 8-11 orr.
Jai honek, haur eskola bateko hezkuntz komunitateko kideen arteko interakzioa erreztea du helburutzat.

**FIGUERAS, M.**:"La música en la infancia", 12-13 orr.
Haur eskolako eguneroko ekintza askok musika kutsua daukate, nahiz eta gu honetaz oso konsziente ez izan.

**DREIER, A., VOIGT-BUCHHOLZ, I.**:"Todos somos diferentes.Trabajo pedagógico con grupos de edades mezcladas", 14-19 orr.
Alemaniako zenbait tokitan orain urte batzuk direla adin ezberdinetako haur taldeekin egiten duten esperientziari buruzko erreflexioa: helburuak, posibilitateak, guraso eta hezitzaileen iritzia...

**RODRIGUEZ, A.**:"Las fiestas y la educacióon infantil", 25-26 orr.

**SCHAFFER, H.R.**:"Efectos psicológicos del divorcio en la infancia", 27-28 orr.
Haur batentzat, dibortzioa, gurasoen arteko erlazioaren desintegrazioa bizitzea dakar berarekin, erlazio honek dakarren desoreka emozionalean ere partaide bera dela.

**CELA, J.**:"¿Mi salud? bien, gracias", 31-34 orr.
Egoera objetibo batzuk daude irakasleen lana zailtzen dutenak eta batzuren osasunean eragin dezaketenak.

**GUIBOURG, I.**:"La construcción de la identidad", 35-36 orr.

**INFANCIA 17, 1993ko urtarrila-otsaila**



**MARTIN, M.L.:**"L experimentación en la escuela infantil", 4-7 orr.
Esperimentazioa ezagupen zientifikoaren oinarrian dago eta ezagupena eta pertsonalitatearen eraiketa-prozesuan ezinbesteko elementua da.

**FLORES, N.:**"Las colonias infantiles", 13-16 orr.
Artikulu honek 2 eta 3 urteko haurrekin egindako Udaleku ezberdinak aukezten ditu.

**JUBETE, M., MAJEM, T.:**"La escuela infantil, un espacio de educación social", 18-20 orr.

**GOMEZ, J.:**"Consideraciones en torno a la familia", 22-28 orr.
Artikuluak, bizipen familiarrari buruzko haurren adierazpenak eta aprendizai sozialerako komunikazio horien esplotazioari buruzko esperientziak batzen ditu.

**LURCAT, L.:**"Lo real y lo ficticio en televisión", 32-33 orr.

**LIZAMA, L.:** "Niños inmigrantes: vulnerables", 35-39 orr.
Hezkuntza, haur eskolatik hasita, tolerantzia aktiboa bultzatu behar da, jakinaren gainera haur inmigranteak babesa behar duen talde bateko partaideak direla.

**INFANCIA 18, 1993ko martxoa-apirila**




**MARTIN CASALDERREY, L.:** "La experimentación en la escuela infantil (y II)", 4-7 orr.
Artikulu honetan, esperimentazioaren funtzioa Haur-Eskolan aztertzen da eta bide batez, ekintza konkretu eta giroaren arteko oreka eta harremanaz hausnartu.

**BINIES, P.:**"Conversación con Loris Malaguzzi", 8-10 orr.
Elkarrizketa interesgarria da artikuluaren egileak "Reggio Emilia"ko Haur-Eskolen koordinatzaileari egiten diona.
Bertan gai hauetaz mintzatzen da: kalitazteko lana egiteko oinarrizko baldintzak, esperientziaren kanporaketa, eskoletako ikasleen jarraipena, etab.

**UNICA, N.:**"Participación de las familias en la escuela infantil", 16-20 orr.
Proposamen teorikoa eta zehaztapenak.

**FEU, M.T., ROVIRA, M..T.:**"Educación medio ambiental:las basuras", 24-28 orr.
Ingurune-hezkuntza lantzen Osonako Haur-Eskola batean.

**CASTILLO, M., PALACIOS, J.:**"Un encuentro con el agua", 35-38 orr.
Jaio berrien estimulazio goiztarra uretan: La Coruñan egiten ari den esperientzia.

**BENITO, A.:**"El porqué y el para qué de la educación para la salud en la educación infantil", 39-41 orr.
"Comunicación entre mayores y pequeños", 44 orr.
Oso polita eta interesgarria Jose Luis Arangurenen "Generazioen arteko solidaritza" izeneko hitzalditik ateratako hainbat esaldi.

INFANCIA

**INFÀNCIA 68, 1992ko iraila-urria**

**COMISSIO D'EDUCACIO DE L'ASSEMBLEA DE DONES DE BIZKAIA:**"Coeducació", 8-11 orr.
Artikulu honek, hezkidetza-kontzeptuari buruzko erreflexioan lagundu nahi du, pentsatuz eta arrazoituz honetarako hezitzaile guztien parte hartzea garrantzitsua dela.




**ROMIA, C.**:"A l'escola per la pau", 6-9 orr.
Eskolan pake-hezkuntzarako lan garrantzitsuena hezitzaileak konbentzituta egotea da.

**JUBETE, M., MAJEM, T.**:"Infant observador:infant explorador", 10-12

**HIGES, A., TORRES, M.**:"La meva història.El llibre del nen", 13-15 Esperientzia hau, 2 urteko haurrekin egin da. Haurrak-gurasoak eta hezitzaileen arteko elkarlanaren emaitza da.

**JUBETE, M., MAJEM, T.**:"L'infant i el seu quotidià", 12-14 orr.

**MALAGARRIGA, M.T., GODALL, P.**:"Cantar amb els més petits", 15-16 orr.
Abestea gozagarri izan behar den eran, kantaraztea ere hala izan behar du.

**FEU, M.T., ROVIRA, M.**:"Educació mediambiental:les escombraries", 17-20 orr.
Ingurugiroari buruzko hezkuntza Eskolako Curriculumean sartu beharra dago. Artikulu honek esperientzia konkretu bat aurkezten du.




**VALERO, L.**:"Conèixer la ciutat:un agran aventura ", 23-25 orr.
Haur Eskolan, haurrak, gurasoak eta hezitzaileak partaide izanik, gure hiriak ezagutzeko nahian jarraitu ahal den bideaz ematen duen proposamena, pena merezi duen esperientzia da.

**PENN, H.**:"Entendre el racisme a la Gran Bretanya", 27-30 orr.
Egilea, Arrazakeriaren aurkako jarrera eta hezkuntza-anizkizuna Bretania Haundian zergatik diren hain garrantzitsuak azaltzen saiatzen da.

**INFÀNCIA 69, 1992ko azaroa-abendua**

**GIMENO, X.**:"El significat de l'aprenentatge significatiu", 2-5 orr.

**SERRA, D., VILA, G.**:"Com peixos a l'aigua...", 16-19 orr.
Taller Triangle de Sant Cugat-en egindako esperientzien bilketa, konkretuki buztin eta eraikikuntz tailerretan.

**ROIGE, M.D.**:"Tractament de l'educació infantil en la LOGSE", 21-24

**SIMON, M.**:"Massatge infantil.Contacte d'amor entre el teu infant i tu", 29-31
Kontaktu honek eskaintzen dituen dimentsioak infinitoak dira. Gorputz komunikazioa eta azala-azalaren bitarteko kontaktuak bide zuzenena eta aldaezina da.

**MARTINEZ, V., SAN VICE, A.J.**:"EL menjador a l'escola", 33-34
Elikaduraren garrantzia hain funtsezkoa izanda, galdera batzuri erantzun beharra dago. Zeintzuk elementuk hartzen dute parte janarian? Elikadura, hezkuntza-gaia da? Jateko momentua, aprendizai une bat gehiago da?

**INFÀNCIA 70, 1993 urtarrila-otsaila**



**MEDINA, A.**:"El folklore i la mainada", 4-7 orr.

**MUYOR, I.**:"Explicar contes amb un codi de formes i colors", 10-15 orr.

**JUBETE, M.**:"Escola-família, responsabilitat compartida", 16-20 orr. Bartzelonako hainbat haur eskolatan, eskola eta familia arteko erlazioa eta haurren hezkuntzan honek daukan eraginari buruz erreflexionatzen hasi da.

**ESPERT, M.**:"Joan Miró: allò que no sabem que sabem. L'educació visual a l'escola", 35-36 orr.

**BATZU**: "Senzillament Miró", 21-24 orr.
Haur-Eskolan, Miró lantzeko proposamenak: artistaren bizitzarekiko hurbilpena, margolariaren plastikaren azterketa ( pintura, kolorea, linea, ...)

**BINIES, P.**:"Testimoni d'una adopció internacional" , 29-33 orr.
Gurasorde batzuen esperientzia eta testimonioa.

**CHORRIN , J.J.**:"Adaptació del nen en el medi aquàtic. Activitats aquàtiques prenatals i postnatals", 38-41 orr.
Haurra eta uraren arteko harremana osasunerako ( bizitzako ongitasuna integrala) oso garrantzizkoa dela dio artikuluaren egileak.



**INFÀNCIA 71, 1993ko martxoa-apirila**

**BATISTE, F., BATISTE E.**:"Els ritmes del nen", 4-6 orr.
Aita eta haurtxoaren arteko harremanak, elkar-ezagutza, denboraren erritmoak, bakoitzaren hizkuntzak, ...

**JANER MANILA, G.**:"Literatura oral i ecologia del llenguatge", 7-10 orr.
Oso interesgarria Janer idazlearen artikulu hau; bertan ahozko literaturaren iturrieza, ahozko hizkuntzaren garrantziaz, arteaz, musikalitateaz, etabarrez mintzatzen da autorea.

**CASTELLO, M.**:"La seqüenciació del segon nivell de concreció", 15-19 orr.

## CUADERNOS DE PEDAGOGIA

**CUADERNOS DE PEDAGOGIA 210, 1993ko urtarrila**

**Monográfico**: "La educación en España", 7-29 orr.
Se ofrece una síntesis descriptiva del panorama educativo en España en un momento de transición y de reforma.
Espainian transizio eta erreforma sasoiko hezkuntza-agenteez laburpen deskriptiboa eskaintzen da.

**EGIDO, I., HERNANDEZ, C.**:"Datos generales", 8-9 orr.

**EGIDO, I., HERNANDEZ, C.**:"El sistema educativo", 10-17 orr.




**EGIDO, I., HERNANDEZ, C.**:"Profesorado", 18-20 orr.

**EGIDO, I., HERNANDEZ, C.**:"La reforma de la enseñanza", 22-26 orr.

**EGIDO, I., HERNANDEZ, C.**:"Para saber más" , 28-29 orr.

**CUADERNOS DE PEDAGOGIA 211, 1993ko otsaila**

**Gai Monografikoa:** "Euro-educación", 7-23 orr.
Europak kooperazio ekonomiko eta sozialari begira, aldatu ezineko ibilbideari ekin dio, honek hezkuntzari zuzenean eragiten diolarik, batez ere bi aspektutan: kalitatearen hobekuntzan eta kualifikazio profesionalean. Hona hemen gai honetaz hitzegiten duten artikulu batzuk.




**FERNANDEZ, J.A.**:"Europa:la hora de la educación y de la cultura", 8-14 orr.

**VALLE, J.M., VILLALAIN, J.L.**:"Acciones y programas de la Comunidad Europea", 16-22 orr.

**VALLE, J.M., VILLALAIN, J.L.**:"Para saber más", 23 orr.

**DIEZ, M.C.**:"Bernat tiene un bebé", 24-25 orr.
Haur bat jaiotzeak, ikerketa errez batera eraman dezaketen galderak eta erantzunak sortarazten ditu. Artikulu honek esperientzia bat deskribatzen du.

**BARO, M.**:"Cómo organizar una biblioteca escolar", 55-59 orr.
Autorea "L'Amic de Paper" taldeko kidea da. Talde honek Bibliotekaren animazio eta antolaketan esperientzia haundia dauka.

**CUADERNOS DE PEDAGOGIA 212, 1993ko martxoa**

**Monografikoa:** "Educación en la diversidad", 7-31 orr.
Aniztasuna, hezkuntz erreforma oinarritzen den zutabe-etariko bat da, aldi berean ere gaia eztabaidatuenetariko bat ere bada. Monografiko honek, arazo honi hainbat artikulu dedikatzen dio.




**RUE, J.**:"Un reto educativo y político", 8-10 orr.
Artikuluaren egileak, gai honen inguruan irakaslegoak 3 arlotan (curriculuma, metodologia eta antolaketa), iraunkorki, erabakiak hartu behar dituela aipatzen du.

**MUÑOZ, E., MARUNY, L.**: "Respuestas escolares", 11-14 orr.
Eskoletan egiten den hainbat esperientzia ikuspuntu desberdinetatik aztertzen da.

**OLIVER, C.**:"El agrupamiento flexible", 19-21 orr.
Esperientzia honek, konpetentzia maila eta aprendizai erritmoen arabera, talde malguen (agrupamiento flexible) ezaugarri esanguratsuenak erakusten dizkigu.

**AUTORES VARIOS** :"Para saber más", 30-31 orr.
Aukeratutako bibliografia lau arlotan banatua agertzen da: Eskola selektiboaren kritika, oinarri psikopedagogikoak, esperientziak eta proposamenak, eta curriculumaren garapenerako baliabideak.

**ROCA, N., PUJOL, M.**:"A vueltas con los proyectos de trabajo", 32-35 orr.
Artikulu honetan, lan-proiektuen faseak aztertzen ditu autoreak.

**FATIMA, N., BAUTISTA, A.**:"No llores vida mía", 36-38 orr.
Eskolako lehenengo egunak:esperientziak eta gurasoen rola.

**CUADERNOS DE PEDAGOGIA 213, abril 1993**

**DURAN, A.I.:**"La organización cooperativa del aula", 39-42 orr.
Artikulu honetako egileak espazio-antolaketa berri bat proposatzen du, beti ere ikaskuntzarako giro aproposa sortu eta irakasleengan lanari buruzko erreflexioa bultzatu asmoz.




**FEBRER, M., JOVER, M.:**"La globalització :una actitud", 19-22 orr.
Artikulu honek, globalizazioa, irakaskuntza eta ikaskuntzaren aurrean batez ere, jarrera bat bezalakoa dela azaldu nahi du.

**BATZU:**"L'autobservació com a mitjà per avaluar el procés educatiu", 23-26 orr.
Autobehaketa, profesionalari akzioari buruz erreflexionatzen eta esperientziaz ikasten laguntzen dion prozedura da.

**ESTELA, A., JUBETE, M.:**"La Casa dels colors", 27-32 orr.
La Casa dels Colors Bartzelonako Udaleko proiektu bat da, haurtzaroaren bizitza-kalitatea helburu duelarik.

**BASSEDAS, E., HUGUET, T.:**"Innovar a l'escola infantil.Bibliografia", 33-36 orr.

## GUIX

**GUIX 181, 1992ko azaroa**




**GUIBOURG, I.:** "Programar a l'escola bressol:les rutines quotidianes i el joc", 7-10 orr.
Programazioa Haur Eskolan garrantzitsua baldin bada eta programatzea planifikatzea baldin bada, eguneroko ekintzak planifikatu egin behar dira.

**BATZU:**"Els mapes conceptuals:una estratègia d'aprenentatge a parvulari", 11-17 orr.

**GUIX 182, 1992ko abendua**




**Monografikoa:** Eskolako Proiektu Curricularra.

**ZABALA, A.:**"El projecte curricular de centre, instrument per a la reflexió i l'anàlisi", 5-10 orr.

**ALSINET, J.:**"Vincles i interaccions entre el PCC i l'organigrama en un centre docent", 13-17 orr.

**DIEGO, J.:**"Els objectius en el projecte curricular de centre", 19-22 orr.

**HERNANDEZ, F.**:"El projecte curricular des dels contiguts", 23-28 orr.

**ROCHERA, M.J., COLOMINA, R.M.**:"La presa de decisions sobre quan ensenyar", 29-33 orr.

**PARCERISA, A.**:"Projecte curricular:criteris sobre com ensenyar", 35-37 orr.

**JORBA, J., SANMARTI, N.**: "L'avaluació:una peça clau del dispositiu pedagògic", 39-48 orr.

**GINER, N.**:"El PCC i l'atenció a la diversitat", 49-54 orr.

**BADIA, J.**:"El projecte curricular de centre.Bibliografia", 57-59 orr.

**BATZU:** "Picasso al cicle inicial", 61-67 orr.
Batzelonako eskola batean egindako esperientzia, non Picassoren obra hobeto ulertzeko, kolorea, marrak, planua eta bolumena landu diren.

**GUIX 183, 1993ko urtarrila**




**COLOMER, T.**:"Què té a veure la llengua amb les altres àrees de contingut?", 5-10 orr.
Artikulu honek Hezkuntza eraginkor bati begira gai bakoitzean aprendizai linguistikoa landu beharra dagoela planteatzen du.

**ONRUBIA, J., SOLE, I.**:"El llenguatge com a eina per a la construcció de coneixements", 11-15 orr.
Irakaste eta ikaste-prozesu gisa hitz egiteko Hizkuntzaz, prestakuntza didaktikoa baino psikologikoagoa hartu behar da; hau da, hizkuntza, ezagupenak kontrajarri, berformulatu edo aldatzeko, tresna pribilegiatu gisa hartzea, dakar berarekin.

**CARBONELL, J.**:"Llengua pròpia i llengües clàssiques", 17-22 orr.

**IZQUIERDO, M.**:"El llenguatge científic a secundaria", 23-30 orr.

**GRATACOS, R.**:"Comunicació i cultura", 31-34 orr.
Kultura baten bizitasuna hizkuntza ezberdinen artean erlazioa garantizatzean egongo litzateke eta zeinu eta esanahi hauen erlazioan kulturaren konplexutasuna dago.

**PEREZ, P.**:"Llenguatges, pensament i matemàtiqúes", 35-43 orr.

**SOTERAS, A.**:"El kuais, l'amic que ens ajuda. La descoberta d'un mateix, intercomunicació i llenguatge", 49-50 orr.
Norberaren ezagutza eta komunikazioa lantzen panpina baten laguntzarekin.

**BURDOY, M., MARTINEZ, M.V.**:"La lectura del nom a la classe de 3 anys", 51-54 orr.
Rachel Cohen doktoresaren obran oinarriturik, irakurketaren irakaskuntzaren esperientzia goiztar bat .

**GUIX 185, 1993ko martxoa**



**ESPINET, M., PUJOL, R.:**"Juguem amb tobogans a l'escola infantil", 11-16 orr.
Artikulu honek "Seminari de Didàctica de les Ciències"k egindako proposamen didaktiko bat azaltzen digu.Bertan planoen inguruan egin daitezkeen esperientzia eta ikerketei buruz mintzatzen dira autoreak.

**VILLAESCUSA, J.:**"Reformar també l'aula de suport", 57-62 orr.
"Laguntza gela"ri buruz hainbat gogoeta eta ikastetxe konkretu batean egindako berrikuntzaren esperientzia eraiten du.

GUIX **186, 1993ko apirila**




**Gai monografikoa:** "Entre matí i tarda", 5-27 orr.
Ikastetxeetan gelditzen den eguerdiko denboraldiarekin, zer egin dezakegu? Denbora galdua ote da?
Hainbat artikulu gai honen inguruan:

**LOPEZ, F.:**"A la recerca del temps perdut", 5-7 orr.

**MORALES, M., ROMAÑA, T.:**"Espai oblidat, temps perdut", 9-11 orr.

**MALDONADO, R., VILLALBI, J.R.:**"El menjador a l'escola:una perspectiva des la promoció de la salut", 13-18 orr.

**ESPLAC:**"La ludoteca itinerant: un nou recurs", 25-27 orr.

## AULA de innovación educativa

AULA 8

Ale honen gai monografikoak Goi Zikloan Gizarte eta Sozial arloaren didaktika aztertzen du.




**Ikastetxea:**
**Enric Bolea, Javier Onrubia:** "La importancia de los objetivos en el currículum escolar"
Eskolak bideratzen dituen irakaskuntza-prozesuak, proiektu jakin batek jarritako helburuen lorpenera bideratuta daude. Intentzionalitate honek azpimarratzen du lortu nahi dena eta lortzen denaren arteko azterketan, helburuek duten rola hala ere prozesu hau arrakastatsua izateko ezagutza eraikitzeko prozesuen aniztasuna kontutan izan behar du.

**Paloma de Pablo:** " La adecuación de objetivos en Educación Infantil".
Helburuak egokitzeak eskatzen duen lana irakasleen artean elkartrukatzeko eta ikasteko tresna bihur daitezke.
Helburu orokorrak ikastetxearen egoerara egokitzea Haur Hezkuntzan beharrezkoagoa bihurtzen da, ziklo honetan egoera oso desberdinak aurki daitezkeelako.
Egokitze lan honek bi ardatzen inguruan antolatu behar da:
. Hezkuntz xedeak ulertzea
. Testuingurua aztertzea

AULA 9

**Inmaculada Serrano:** " Del trabajo compartido al conocimiento compartido".

-Zeintzuk dira talde-lana oztopatzen duten arrazoiak?
-Zeintzuk dira abantailak?




-Zeintzuk dira benetako taldelana burutzeak eskatzen dituen baldintza minimoak?
-Nola landu taldeka eginkizun konkretuak?

**Eduard Martí:** "¿ De qué depende la eficacia del trabajo en grupo?".
. Eginkizun mota?
. Adina?
. Gaitasuna?

-Zeintzuk dira elkarlana arrakastatsua izateko baldintzak?
. Imitazioaren papera
. Rolen banaketa

AULA 10




**Gai monografikoa:** Sekuentziazioa.
Monografiko honetan idatzitako artikuluetatik bakar batzuk aukeratu ditugu komentatzeko, hain zuzen ere interes orokorra dutelako edo 0-7 adinari begira idatzita daudelako.

**Luis Del Carmen:** "Una propuesta práctica para analizar y reelaborar las secuencias de contenidos".
Edukiak sekuentziatzeko maiz sortzen diren arazoen zerrenda eta konponbideak.

**Tomas Sanchez Iniesta:** "Aplicación de los mapas conceptuales en la elaboración de secuencias en el área de Conocimiento del medio".
Mapa kontzeptualek kontzeptuen arteko erlazio-sareak irudikatzen dituzte eta honako erlazio hauen ezagutza ahalbideratzen du:
. Ikuspegi globala edukitzea
. Kontzeptuen jerarkizazioa ikustea

**M. Martinez, M.R. Buxarrais, I.Carrillo, S.Lopez, M. Payá:** " ¿ Se pueden secuenciar las actitudes ?"

Jarrerak sekuentziatzeko bi irizpide proposatzen dira :
-Haurren garapena : Garapen kognitiboa
Ezagutza soziala

-Jarreren dimentsioak:
. Mikrosoziala. "Ni"aren inguruan sortzen diren egoerak.
. Mesosoziala . Pertsonen arteko erlazio zuzenak.
. Makrosoziala . Inguruarekiko erlazio abstraktuak.

**Ikastetxea:**
Atal honetan argitaratutako artikuluek, kurrikulumean aniztasunari eman beharreko erantzuna zehazteko irizpideak eta bide posibleak aztertzen dituzte.

**Rosa Blanco:** " La respuesta a la diversidad y las intenciones educativas".

**María Antonia González:** "La organización del centro al servicio de la respuesta a la diversidad".

**Victor Rodríguez:** "La metodología y el tratamiento de la diversidad en el PCC".

AULA 11




**Gai monografikoa:** Haur Hezkuntza.

**Isabel Solé:** " Algunos retos para la educación Infantil".
Haur eta helduen arteko elkarrekintzen inguruan antolatzen dira etapa honetan ematen diren irakaskuntza-ikaskuntza esperientziak.
Esperientzia hauek zikloaren berezitasunetan oinarritzen dira:
-Adinaren arabera ziklo barruan ematen diren diferentziak.
-Haurren dibertsitatea eta taldeen heterogeneitatea

**Mercé Bassedas , Ignasi Vila:** "¿ Qué escuela para los niños de tres años?"
Udaletxeko Haurtzandegi(0-3) eta Haur-eskoletan (3-6) egindako ikerketa baten emaitzetatik abiatuz ,etapa bi hauen artean ematen diren desberdinatsunak aztertu eta ondorio gisa

erreformari begira zenbait proposamen egiten dituzte autoreek.

**Antoni Zabala:** "Los ámbitos de intervención en la E. Infantil y el enfoque globalizador".
Haur-hezkuntzan ematen diren irakaskuntza-uneen inguruan: (gaiak, proiektuak, txokoak, errutinak) proposamen didaktiko bat egiten du autoreak. Proposamen honetan, ikuspegi bateratuak ahalbideratu behar dira, eduki konkretuak batasunean kokatu ahal izateko.

**A.M. Albertin, M.A. Guerendiain, B.Zufiaurre:** "La educación infantil en la zona rural".
Haur-Hezkuntzak nekazal ingurunean dituen berezitasunak eta ondorioz bete beharko lituzkeen helburuak azaltzen dira.

**Vicenç Arnaiz:** "El equipo docente frente al Proyecto Curricular de Centro".
Ikastetxearen Curriculum proiektuak, Administrazioak eskatutako formalismo bat bihurtzeko arriskuaren aurrean, irakaslegoaren erreflexio metodologikoa bideratzeko tresna modura joka dezakeen papera azpimarratzen du autoreak.

**Alfredo Oliva, Jesús Palacios:** "Familia-Escuela Infantil. El problema de las discrepancias en ideas y valores educativos".
Autoreek egindako ikerketa baten emaitzetan oinarrituz ondoko gaiak aztertzen dira:
-Irakasleen eta gurasoen arteko harremanak
-Hezkuntza-baloreei buruz guraso eta irakasleen iritziak
-Haur-hezkuntzari buruz guraso eta irakasleen iritziak

**Paloma Sainz de Vicuña:** "Los recursos materiales en E.Infantil"
Haur-hezkuntzan erabil daitezkeen baliabideak, arlo desberdinak lantzeko eskeintzen dituzten aukerak eta beraien antolaketarako eta erabilerarako irizpideak.

**Leonor Carbonell , María Gómez del Moral:** "Los proyectos de trabajo y el aprender a aprender en E.Infantil"
Hiru eginkizunen inguruan antola daiteke lana: Lan proiektuak, txokoak, tailerrak.Eginkizun bakoitza antolatzeko zehaztu beharreko arloak:
-Gaiaren aukeraketa,helburuak, lanaren antolaketa,ebaluaketa.

**E.d'Egia, M.J. Giménez, M.Marced, N.Puig:** "Un taller de matemáticas 4-5 años"
-Tailerraren antolaketa
-Joku egokiak
-Behaketa-ebaluaketa

## INFANCIA Y APRENDIZAJE

**INFANCIA Y APRENDIZAJE 59/60**




Ale monografiko honetan jasotzen dira, 1991ko irailean Bartzelonan egin zen "I Encuentro sobre lineas de Investigación en Psicología de la Educación" izeneko topaketetan aurkeztutako ponentziak.
Ondoren azaltzen dira aldizkarian aztertzen diren gaiak:

**Mario Carretero eta beste batzuk:** "Psicología de la instrucción, razonamiento y conocimientos específicos".
Garapen kognitiboari buruz Piagetek sortutako teoriak oso orokorrak dira eduki konkretuen ikaste-prozesua azaltzeko; hutsune hau gainditzeko sortutako aurrezagupenena, ostera, ikuspegi zatikatua eskeintzen du. Mario Carreterok eta bere ekipoko kideek erdibide bat proposatzen dute.

**Pablo del Rio eta Amelia Alvarez:** "Tres pies al gato: significado, sentido y cultura cotidiana en la educación".
Autoreek hiru gai aztertzen dituzte beraien ponentzian:
-Psikologia kognitiba eta ikuspegi soziokulturalen arteko integrazio-bideak.
-Garapen kognitiboak eskatzen duen deskontestualizazioa eta motibazioak eskatzen duen kontestualizazioa lotzeko bideak.
-Eskolako ezagutza, kanpoko ezagutzarekin lotu beharra.

**Liliana Tolchinsky, Ana Teberosky:** "Al pie de la letra"
Irakurketa eta idazketaren ikaste-prozesuari buruz egindako ikerketek jarraitu dituzten bideak azaltzeaz batera, haurrek beraiek jarraitzen duten prozesuaren ildo nagusiak azaltzen dituzte.

**Cesar Coll eta beste batzuk:** "Actividad conjunta y habla: una aproximación a los mecanismos de influencia educativa"
Autoreek, irakasle-ikasleen arteko interakzioaren ikuspegitik aztertzen dute ikaste-prozesua. Ezagutzaren transmisioan ematen den prozesu erakitzailea ematen da bai ikasleen aldetik eta baita irakasleen aldetik ere.

## INFANCIA Y APRENDIZAJE 61




**Mª Belén Bueno:** " El desarrollo del conocimiento humano sobre el tiempo".
Artikulu honetan aztertzen diren lanen azalpenaren bidez, adin bakoitzean gizakiak menperatzen ditu denboralitatearekin lotutako kontzeptuak azaltzen dira, eta, halaber, gai hau aztertzeko autore desberdinek erabilitako metodologia.

**Mª Jose Ortiz:** "Conocimiento social: Génesis y naturaleza de la representación de las figuras de apego".
Errepresentazio honen garapena eta funtzioa inguru sozial eta fisikoari egokitzeko.

**Grace Shum:** "El pronombre en el lenguaje formal del niño"
Nahiz eta haurren mintzamenean izenordea oso goiz agertu, erabilera anaforikoak zailtasun handiak sortzen ditu. Autoreak O.H.Oko 2.mailako 180 ikasleren testuak aztertzen ditu, normalki zeintzuk diren egiten dituzten akatsak aztertzen duela.

# COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION

## COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION, 16




**Bernard Schneuwly:** "La concepción Vygotskiana del lenguaje escrito".
Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatziaren arteko harremanak azaltzeko dauden aurkako ikuspegiak aztertzen ditu autoreak.
Hizkuntza idatzia , ahozko hizkuntzaren kodifikazio bezala ulertzen duten ohizko teoriei Vygotskiren ikuspegia kontrajartzen zaie.
Autore honentzat ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren prozesuak oso desberdinak dira.

**Neus Roca:** "Desarrollo del aprendizaje de la escritura en alumnos y alumnas discapacitados".
Premia berezia duten haurren testu idatziak aztertzen dira, ikuspegi psikogenetikoak ( Emilia Ferreiro, Ana Teberosky) sortutako marku kontzeptuala jarraituz.
Azterketa honen emaitzetatik didaktikarako ere baliagarriak izan daitezkeen erizpideak azaltzen dira.

**Javier Zanón:** "Como no impedir que los alumnos aprendan inglés".
Eduki isolatu eta haurren esperientziekin zer ikusirik ez duten edukien erabileraren ordez , xede eginkizunetan oinarritutako metodologiaren aportazioak azaltzen ditu autoreak.

## COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION, 17




**Eduard Aznar, Anna Cros y Lluis Quintana:** "Lectura y coherencia textual. (Análisis de un texto narrativo)".
Testuaren linguistikatik abiatuz haurrek idatzitako testu narratibo baten azterketa.

**Josu Sierra:** "Revisando algunos aspectos de la educación bilingüe".
Eredu elebidunen arrakastaren edo porrotaren oinarrian egon daitezkeen zenbait erizpide didaktiko aztertzen dira eta etorkizunerako printzipio batzuk proposatu.

**Laura Cerdán, Vicens Martínez , Manuel Ríos:** "Análisis de un fragmento de clase de catalán".
Irakaslearen diskurtsoa aztertzeak eduki dezakeen balioa.

**Rosa Mª Bellés , Rosa Falguera , Gloria Ginabreda:** "Cosas que usted no tuvo ocasión de preguntar sobre el aprendizaje y la enseñanza del lenguaje escrito a alumnos con NEE".
Irakurtzen eta idazten ikaste prozesua azaltzeko eta bideratzeko sortu diren ikuspegi berriak: Irakaskuntza interakzioan oinarritzea, testuak ulertzeko eta ekoizteko mekanismoen ezagutzan oinarritzea , baliogarriak izan daitezke ere autoreek erakusten duten bezala Premia bereziak duten haurren ikaste prozesua bideratzeko.

# ARTEAREN HEZKUNTZA

## edukia:

1. gaiaren aurkezpena

2. artearen hezkuntza jorratzeko beste ikusmolde bat

3. eta zentzumenei buruz hitzegiten badugu?

4. metodologia pixka bat.

5. "Ikertze"

— eta zer da, ba, "Ikertze"?

— Ikertze eta "Arteniño" laborategiak

- laborategi bisuala
- laborategi ozen-musikala
- adierazpen dramatikoaren laborategia
- ikuspegi pedagogikoaren nagusitasuna

6. bibliografia

— irudiei buruzkoa

— adierazpen dramatikoari buruzkoa

— musikari buruzkoa

# GAIAREN AURKEZPENA

Aldizkari honetan parte hartzeko aukera eskaini digutenean, zuen gogoan eta geletan jartzen ahalegindu gara eta blai-blai eginda somatu ditugu ERREFORMA deritzon eta eskatu egiten duela dirudien zaparrada-mamu horrekin.

Nahastealdia da, bibliografien garaia, hitz berrien tenorea. Denek hitzegiten eta idazten dute gai horren inguruan eta badirudi ahaztu egiten dutela bihar bertan gela horietan mintzoak entzungo direla, eta etzi ere bai eta baita hurrengoan eta hurrengoan ere, oporrak iritsi arte.

Eta gu ere ERREFORMAri buruz hitzegitera etorri gatzaizkizue (erreforma eta hezkuntza artistikoari buruz zehazki) nahiz eta nolako nahaspila eta bakardadea duzuen jakin, nahiz eta bokazioen eskaziaz eta soldata urriaz konturatzen garen, eta nahiz eta behar den moduko edozein ikastarotan agerian geratzen diren ohizko eragozpen guzti horiek kontuan hartzen ditugun.

Idatzi honekin lortu nahi dugun helburua: zuengana era erraz eta zuzenean heltzea, batez ere, horixe, era errazean; galdera sinpleei erantzuten ahalegintzea. Galdera hauexei, esate baterako: zer da hezkuntza artistikoa? zer da guretzat? nola heltzen dio horri erreformak? (eta minuskulaz jartzen dugu, "etxeko" hitz bat gehiago data) zertarako dira hezkuntza artistiko eta erreforma hori? nola lan egin behar dugu haurrekin? nola ebaluatuko dugu egiten dugun lana? Baina batez ere, gure helburua edo, hobe, gure nahia zera da: ilusioa eta jolasteko eta gauzak probatzeko gogoa kutsatzea. Zeren gure *Munari* profesore kutunak esaten zuen moduan "gauzak ezagutzeko jakinmina, gauzak ulertzeak dakarren atsegina eta komunikatzeko nahia bizitza guztirako gordetzea, haurtzaroa bizitza guztirako gordetzea da".

Tira, ba, horrexetara goaz!



# ARTEAREN HEZKUNTZA JORRATZEKO BESTE IKUSMOLDE BAT

Antzinatik, "irakasgai artistikoak" deritzen horiek irakasten jardun dugun langileok negar itsasoz eta kexuz blai utzi ditugu gure gelak, gure batzarrak eta gure herria, gure jardunari eskaintzen zaion arreta txikia dela eta. Gure iritziz, plastikako, musikako edo dramatizazioko klaseetan egiten zenak (edo egiten ez zenak) ez zien ardura ez ikasleei ez ikastetxeko zuzendaritzari eta, zer esanik ez, ezta gurasoei ere; hau da, ez zion ardura gizarteari. Eta horren ondorio argiak ziren: planifikazio eta programazio falta, haur eskola utzitakoan haurrek irakasgai horiek gehiago ez ikustea edo "serioak" deritzen irakasgaiei kenduriko orduetan, hala holako tailer batzuetan, gai horiek ematen zituztenen noraeza.

Eta kontua da, arazoari oraintxe eta hementxe helduz gero (hau da, gauza asko erreformatzekotan datorren Erreformaren atarian gaudela) zera aitortu behar genukeela: beharbada "apaingarri"zko irakasgaiak izatearen ospea ongi merezita geneukala. Zeren, nire ustez -eta ea beste iritzi batzuk dituzuen eta eztabaida eta debatea eragiten dudandenon artean horixe izatea lortu genuen: apaingarri hutsa. Izan ere, zer zen plastikako, musikako eta antzerkiko tailer edo klaseetan lortu nahi zena?

Sarri askotan, plastikako klasean, eskuarekin trebetasuntxoa lortzeko ahaleginetan aritzen ginen gauza "politen" bat egiteko asmoarekin (aitaren egunerako hautsontziak, gabonetarako iruditxoak...). Antzerkian, berriz, helburua gauza "ikusgarri" bat egitea izaten zen, gero, egun jakin batean, gurasoei edo beste haur batzuei erakusteko. Eta musikakoetan... ba, horixe, kantatzea!

Labur esateko: "apaingarriak".

Badakit idazgai hau irakurriko duzuen guztiok ez duzuela zuen burua horrelako irakasleen artean ikusiko, baina zera aitortu behar dizuet, adierazpen puztu samarra bada ere, horrelakoen taldea oso ugaria dela.

Eta, jakina, haurrak koskortzen zirenean, jadanik hain "xarmangarriak" ez zirenean eta horiek baino egiteko garrantzitsuagoak (irakurri, idatzi, zenbatu eta horrelakoak) agertzen zirenean, apurka-apurka, galdu egiten zen zeregin artistiko horiek egiteko interesa eta ez zuten izaten horretarako astirik. Noizbehinka kexuren bat egiten genuen,

baina... beti zegoen bainaren bat.

Denbora aurrera joan ahala, egoera hori aldatu egin da apurka-apurka -arlo horretako profesionalok konturatzen joan garen neurrian- eta gero eta tinkotasun handiagoz defendatu dugu gai honetan benetan funtsezkoa dena ez dela LORTURIKO EMAITZA, haurraren garapena erakarriko duen LAN PROZESUA bera baino; kontua ez dela ekintza "politak" (politak edo!) egitea, benetan ardura duena ikusten ez den aldea, haurraren barrenean hazten den hori, dela.

Eta hara non heldu zaigun irakaskuntzaren ERREFORMA, guri arrazoia ematera. Zeren Oinarrizko Diseinu Kurrikularra eta Erreformaren gainean argitaratzen diren liburu ugariak arretaz irakurtzen baditugu, ikusiko dugu haren oinarrietako bat arlo kurrikular guztiei (eta horien artean hezkuntza artistikoari ere bai, jakina) eman nahi zaien NORABIDE ALDAKETA dela. Hau da, irakaskuntzaren benetako helburua ez da umeak ikasiko dituen KONTZEPTUEN kopurua, ezta egin ditzakeen PROZEDUREN multzoa ere, ikasleak bereganatzen dituen GAITASUNAK baino.

Eta gauzak argi horrekin ikusita, argipean aurkituko duguna guztiz bestelakoa izango da. Gure zeregina ez da gauza "politak" egitea, gure helburua ez da zenbait gaitasun erakustea, besterik gabe. Hori baino askoz sakonagoa da helburua. Gauzak BEHATZEKO, SOMATZEKO, ADIERAZTEKO ETA KOMUNIKATZEKO GAITASUNAK garatzeko asmoarekin dihardugu. Umeak bere ZENTZUMENAK HEZI ditzan, bere IRUDIMENA eta SORMENA landu ditzan ahalegintzen gara. Ez zaizkigu komeni, emaitza ona ematen digutela eta, ikasturtez ikasturte errepikaturiko ereduak. PENTSAERA DIBERGENTEAren alde ari gara, bakoitzaren berezitasuna bilatzen duena. Umeak bere buruari ARAZOAK PLANTEA diezazkiola eta guk ematen dizkiogun ERREMINTA/TEKNIKEN bidez IRTENBIDEAK aurkitzeko GAI izan dadila nahi dugu.

Beraz, ez digu hainbeste ardura emaitzak. Umea HAZTEA, JAKINAHIA IZAN DEZALA, GAUZAK ADIERAZ DITZALA, ZENTZUME-



*Ikertze*

NAK JORRA DITZALA, INIZIATIBADUNA IZAN DADILA, bere NORTASUNA SENDO DEZALA da ardura diguna. Oso gauza serioak dira hauek.

Eta irizpide horiek etengabe aurkitzen ditugu Oinarrizko Diseinu Kurrikularrean. Hasteko, haur hezkuntzari buruzko zatia hartzen badugu, ikusiko dugu plastika, musika eta dramatizazioa (mintzamena eta matematikarekin batera) jorratzen dituen atala Komunikazio eta Errepresentazioaren Arloa dela. Eta horrek gorabehera handirik ez duela badirudi ere, badauka. Zeren horrek beste ikuspuntu batera baigaramatza. Horrek dioskuna zera da, haurrari teknika horiek ematen dizkiogunean, batez ere, besteekin komunikatzeko eta gauzak adierazteko gaitasuna dela bultzatzen ari garena.

Komunikazio eta Errepresentazioaren Arlo horretako HELBURU OROKORREI dagokienez, bertako tonuak berriro azpimarratzen du lehen aipaturikoa.

"Komunikazio eta errepresentazioen arloari dagokienez, hezkuntz jardunaren helburua irakaskuntza-ikaskuntza prozesu batzuk garatzea izango da eta prozesu horiek honako gaitasun hauek eman behar dizkiote haurrari: "sentimendu, nahi eta ideiak adieraztekoa..." (...) "egoerak, ekintzak, nahiak eta sentimenduak gogora ekartzekoa..." (...) "bere ahalmen komunikatiboak aberastekoa...".



*Ikertze*

Orobat gertatzen da musikaren adierazpe-

naz, gorputzaren adierazpen eta komunikazioaz eta ikustezko adierazpen plastikoaz zehaztasun handiagoz dihardueneán ere. Zenbait esaldi esanguratsu nabarmenduko ditugu:

Adierazpen musikalaz diharduenean hala dio: "Musikak eskaintzen dituen komunikazio ahalmenak mugagabeak dira". Aurreratxoago, berriz, hala dio: "Musika erabiliko dugu adierazpen kontestu hori, bizipenen kanporaketa eta abar lortzeko bitartekotzat". Eta beste hau ere badio "Etapa honetako jardun musikalak jolas eta sormen eginkizuna izan behar du".

Gorputz adierazpenaz eta komunikazioaz diharduenean, zera adierazten du: "Gizakiak keinu espontaneoarekin edo nahita eginikoarekin adierazten ditu bai bere barreneko mundua bai nozio perzeptiboak, kontzeptuak, sentimenduak, eta abar". Hala dio aurrerago: "Gorputzaren komunikazioak hartu-eman zabala eta konfidantza errotzeko aukera ematen du eta horiek komunikazio orokorraren garapena ahalbideratzen dute".

Adierazpen plastiko eta ikustezkoari buruz, OCDk zera diosku: "Haur eskolak bultzatu egiten du berezko adierazpen hori, bakoitzaren erritmoa errespetatuz, eta bitartekoak jartzen ditu adierazpen plastikoa eta ikustezkoa benetako adierazpen eta komunikazio bidea izan daitezen".

Tira, ba, guzti hori hala bada, sinetsi egiten badugu, aintzat hartu behar dugu. Ezin dugu utzi *"Oinarrizko Curriculumaren Diseinua"* deritzon liburu batean idatzita omen dagoen gauza bat izan dadin, besterik gabe, eta irakasleen gelako liburutegian gera dadin. Aitzitik, gure batzar-mahaira eraman behar dugu, eztabaida dezagun, denbora eskaini geletan seriotasunez erabil dezagun eta, azkenik, behar den *curriculuma* denon artean egiteko.

Badakigu jakin eragozpenak ugariak direla. Beharbada handienak prestakuntzarik eza eta denborarik eza izango dira.

Prestakuntzarena aintzat hartu behar da, benetan, asmo hutsak ez baitira nahikoa. Irakasleak erreformatu egin behar du bere burua, beste ezer erreformatu nahi badu. Bitartekoak eskueran izango ditugu, eta ez baditugu lehenbailehen eskatu beharko ditugu. Ikastaroek, irakurketek eta eztabaidek izan behar dute irakasle taldearen euskarri. Baina ez dugu ahaztu behar ez garela hutsetik hasten. Urte askotako jarduna eta umeen munduaren ezagutza zimentarri egokia dira gauzak eraikitzen hasteko.

Denbora, lehen aipatu dugun bezala, gure kontra dabil; batez ere, haurrak haur hezkuntzako lehen urteak gainditu eta lehen hezkuntzara iritsi eta hurbiltzen diren neurrian. Hainbesteko eginbeharra dugu! Eta irakaslegoa hain presionatuta dago eta hainbeste alderditatik, ezen batzutan lasterregi etsitzeko arriskua izaten baitugu. Baina denbora -ez dugu inoiz ahaztu behar- neurtu, banatu eta antolatu egiten den gauza bat da; eta geuk erabaki beharko dugu nola egin.

Zeren horretarako unea iritsi da jadanik. Benetan pentsatzen badugu egiten duguna garrantzitsua dela, benetan sinesten badugu komunikazio eta errepresentazio era horiek (musika, gorputz adierazpena eta plastika) umeen hezkuntza integrala aberasteko modu on bat direla, orduan horren alde egin behar dugu, tinko-tinko. Haurrek gogo handiz hartuko dute. Gurasoek ulertuko dute, ondo azaltzen badiegu. Geure esku dago, beraz.

*Enkarni Genua*

# ETA ZENTZUMENEI BURUZ HITZEGITEN BADUGU?

"Haurrak ez ditu ideiak bereganatzen, irudiak baino... Haurrak hotsak, irudiak, sentipenak... gordetzen ditu eta nekez ideiak. Bere jakituria guztia sentipenean dauka. Gizakiaren lehen arrazoia zentzumenena da: gure lehen filosofia-irakasleak begiak, eskuak, oinak eta belarriak dira".

Rousseauri eskutik oratuta sartu gara. Berarekin ikusten dugu zentzumenak direla mundura begira ditugun lehen leihoak, mintzamenaren aurretiko kontzientziaren eta adimen kontzeptualaren oinarria direnak. Piagetek dioen bezala, adimen kontzeptuala, haurrarengan, hitza errotu ondoren agertzen da.

Kontuak kontu, gure zentzumenak beti izango dira gure informazio bideak eta hori baino "harantzago joan" nahi badugu, konturatuko gara gure kontzientziak eurengan oinarritu beharko duela eta, oraindio "harantzago joanez", baita gure zentzunak eta adimenak ere.

Gaur egun onartuta dago "hitzezko pentsaerarekin" batera, irudien bidezko pentsae-



*Ikertze*

ra bat agertzen dela, inguruabarren eta norbanakoaren arabera eratzen dena. Eta mundu guziak ontzat jotzen du Ruskinen esaera hau ere: "ikusi egiten dugula iruditzen zaigu, benetan, ezagutu besterik egiten ez dugun hori".

Beste datu bat: bizitzea tokatu zaigun garai honi, gaur egun, irudien aroa deitzen zaio. Izan ere gure hirietan hartzen dugun infromazioaren % 94 ikusentzutezkoa da eta horren % 80 begietatik gureganatzen dugu.

Eta hementxe gaude gu, hezkuntzako langileok, hezkuntza artistikoaz hitzegiten; eta hezkuntza artistikoa zentzumenen hezkuntza besterik ez da. Eta ez ahaztu "edukatzea", etimologiaz, "-TIK KANPORA ATERATZEA" dela, hau da, norberak gauzak adierazteko duen gaitasun pertsonal eta berezi hori (barrenean denok daukaguna, den-denok) indartu eta proiektatzea.

Hala, oraindio "harantzago joan" nahi badugu munduan eta munduarekiko dugun betiereko jokabidea definitzen duen mugimendu horretara iritsiko gara: BARRENETIK KANPORA ETA KANPOTIK BARRENERA, hartu eta eman... azken batean, komunikatu.

Baten batek esan du kultur adierazpen oro komunikazio jarduna dela. Gauza guztiek esaten digute zerbait: bai zuzendariaren bulegoaren tamainak, bai bere galtzerdiek eta baita bostetako trenaren txistuak ere (batzuk, beharbada, entzungo ez dugun arren); halaber, bostekoa ematean gauza bat esango digu esku bigun eta nasai horrek eta beste bat esku indartsu eta adiskidetsu horrek; gauza bat odolki antzeko esku horrek eta beste bat esku belakitsu horrek. Hala, asko eta asko hitzegin da zenbait eskuri buruz; esate baterako, "generalisimo"aren eskuaz: haren bostekoak beti egiten omen zuen tirakada txiki bat beherantz, bestearen "gizabidezko makurketa" eragiten zuena.

Tira, ba... bai. Gauza guztiek komunikatzen dute zerbait. Gauza guztiek esaten dute zerbait. Baina gauza guztiek ez dute era berean kontatzen eta denoi ez digute gauza bera kontatzen. Hau da, nik "eskua" esaten badut zuk "ikusten"duzun eskua, ziur aski ezberdina izango da nik imajinatzen dudanaren aldean. Eta, horrek, zer esan nahi du? Ba, niretzat bi gauza:

Bat... "eskua" hizkuntz zeinu bat dela, ez gauza bat eta, ondorioz, bakoitzak esku ezberdina "ikusten" duela; zeinu hori adierazle batekin lotuta doala, kasu honetan "eskua" hitzarekin (baina hots batekin, keinu batekin edo irudi batekin ere lotu zitekeen) eta adierazle horri esanahi bat (gutako bakoitzak bana) ematen diogula.

Eta, bi... ahozko zein idatzizko hizkuntzaren kodea ez dela itxia, matematikoa bezala, zeinetan "bi" esaten dugunean denok gauza bera ikusten baitugu.

Eta, hiru... eta jadanik ez dira bi. "Eskua" hitza (hizkuntz zeinua) esaten dudanean, ahozko hizkuntza FUNTZIO ERREFERENTZIAL batez ari naiz erabiltzen eta, zera... hizkuntza bakoitzak funtzio pila bat daukala.

Eta, diskurtso guzti hau zertara datorren? Ados jarri gaitezen eta hizkuntza bakoitzak bere kode propioa duela ikusteko, kode hori pertzepzio/deskodeketa eta adierazpen/kodeketa prozesu guztietan erabiltzen dugu eta.

Koadro batera hurbiltzen garenean (imajina dezagun Velazquezen "Atsoa arrautzak frijitzen" dugula aurrean) garrantzitsuena ez dela arrautzaren zuringoaz edo atsoaren musuzapiaz kontura-

tzea; kontu hori margogintzaren hizkuntzako funtzio erreferentzialari buruz mintza zaigula; ikusi edo ikusten irakatsi nahi badugu, kodigo berezi hori nola erabili den aztertu behar dugula; marrazki, hitz edo keinu bakoitzaren atzean kodeketa prozesu bat egon dela; eta gure eginkizuna, haurraren laguntzaile edo irakasle garen aldetik, aurkiarazi nahi dizkiegun kode horiek ezagutzea dela.

hainbesteko arduraz lantzen dena) laguntzaile bat dela frogatzeko. Eta mintzaira horrekin hain tematiak bagara, ez da izango gure ikasleei irakasten diegunean segurtasuna sentitzen dugulako? Gure inkestek diotenez, irakasleen artean portzentaia handi batek matematikak eta hizkuntza hautatzen du bere irakasgaitzat. Zergatik ote? Ez da izango hizkuntza horietako kode berezia ondo ezagutzen dutelako?



*Ikertze*

Gaur egun ez dute balio antzinako ereduek, antzinako irakaskuntzek. Mundua aldatu egin da eta horrexetan dihardu, bizkor-bizkor. Nahikoa da aldizkari bat hartu edo supermerkatura joan eta begiak eta belarriak adi-adi jartzea: tomate potearen etiteka, telebistako iragarki bat, orri zuri bat...

Dagoeneko ez dago kalera irten beharrik ahozko eta idatzizko hizkuntza (gure geletan

Baina gaur egun haurren beharrak beste batzuk dira. Hala ere, bada zerbait, aldatzen ez dena: "ezer ez zen (eta oraindio ere hala da) etsitzea bezain periloski erraza" (M. Yourcenar).

*Zuriñe Adrada*

# METODOLOGIA PIXKA BAT

"Bada gaur egun haurra estetikoki hezteko, artea (arte osoa eta arte guztiak) gaurko artetik abiatuta ulertzen irakasteko teknika bat: artelanean sortzaile aktibo gisa parte hartzen irakastea; musikan, margogintzan, eskulturan... Haurra inprobizazioaren bidez "sortzera" jolasten jarrita egiten da hori. Inprobisatzen irakastea gauzak bilatzen eta ulertzen ikastea da".

Lehen Rousseau izan dugu gurekin, oraingo hau Oteiza izan da, zeren bere hitzetan baitago hitzetik hortzera dabilen "APRENDIZAIA (ikaskuntza) ESANGURATSU" horren gakoa.

Sakon dezagun gaia:

Has gaitezen haurrek zerbaiten ezagutzara iristeko duten eraren zirriborroa eginez, hau da, goazen HAURREK GAUZAK NOLA EZAGUTZEN dituzten aztertzera. Bide honek lagunduko digu proposaturiko metodologia hori benetako premia baten erantzuna dela ikusten eta ez halabeharrez gertatzen den zerbait (uste dut zergatia jakiteak nola egin jakiten lagunduko digula).

Berriro ere Piagetengana itzuliko gara (ez dakit zer egingo genukeen bera gabe). Piagetek diosku haurrak EREDUAK sortzeko beharra duela, jasotako informazioa antolatzeko eta zerbait azaltzeko premiari erantzuteko. Hala ere, horrek ez du esan nahi informazio beraren aurrean denok eredu berberari heltzen diogunik. Esate baterako, jo dezagun hiltz multzo bat dugula: kurloia, gominolak, gabiraiak, karameloak, kakatua, golosina. Hitz horiek bi taldetan sailkatu nahi baditugu zera egin dezakegu: "g-" hitzaz hasten direnak alde batean eta "k-"z hasten direnak beste batean; edo bestela hegaztiak alde batean eta gozokiak bestean; edo singularrak eta pluralak... edo bururatzen zaizuen beste edozer.

Aipatu dizkizuegun eredu horiek KONTZEPTUZ eta ERREPRESENTAZIOZ eratzen dira eta beharrezkoak dira hartzen dugun informazioa teorizatu eta ulertzeko. Ereduak ez dira aldaezinak izaten. Itxi eta ireki egiten dira bizitza osoan zehar. Haurrek eta adin nagusikoak aldatu egiten ditugu ereduak, berriak sortu, zaharrak apurtu, egokitu... baina helduaren eta haurraren arteko ezberdintasuna funtsezkoa da. Haurra ez da eredu bat aldatu edo suntsitzeko beldur; helduok, berriz, uste dugu ereduotan dagoela gure segurtasuna eta, ondorioz, gure beldurrak ugariak izaten dira.

Eredu bat sortu, apurtu edo gordetzeko NORBANAKOAREN ESPERIMENTAZIOA egin be-

har da eta, ikusten duzue?... oraintxe hasi gara gure auziaren muinean sartzen.

Ikus dezagun zer egiten duten zientzilariek: esperimentazioan oinarritzen dituzte euren teoriak. Haurra eta zeintzilaria mundua ulertu nahian ibiltzen dira eta, asmo horrekin, galderak egiten dizkiote euren buruari eta erantzun egokia aurkitzen ahalegintzen dira. Bi horien arteko aldea galderen konplexutasunean dago eta ez ezagutzara heltzeko duten moduan.

Baina, tira... orduan, zein da gure zeregina haurraren laguntzaile garen aldetik? EREDUAK SORTZEN IRAKASTEA, eta ez aurretik eginiko ereduak ematea.

Eta hori, nola egiten da, ba? AHALIK ETA ESTIMULURIK GEHIEN PROPOSATUTA, hau da, jolas-tranpak, eman nahi diegun informazioa aldean daramaten jolasak eta, azkenik, ikusten, entzuten, hitzegiten eta gauzak egiten ikasteko jolasak asmatuta.

Emaitzek ez digute ardura; errealizazio/ikaste prozesuak bihurtzen du jolasa tresna baliagarri. Hori oso argi eduki behar dugu gure ebaluaketa egiteko orduan. "Gurea" esan dut baina, jakina, gurea eta haurrarena esan nahi dut.

Baina... eta NOLA ASMATZEN DA JOLAS BAT? Jolas batek zerbait ikasteko balio badu, lehenengo argi-argi zehaztu beharko dugu zer irakatsi nahi dugun, ze kontzeptu edo gaitasun nahi dugun haurrak, jolasaren bidez, ikas dezan. Bigarrenik, besteek zer egin duten jakin beharko dugu. Informazio apur bat ez da sekula txarto etortzen. Zein da materialik egokiena? Nola manipulatu behar dut? Nola egin dezaket? MATERIALA eta TEKNIKA haurrari aurkiarazi nahi diogunaren zerbitzuan jarri behar dira. Teknika bera ez da sekula helburua izan behar. Askotan materiala manipulatzeko moduak esango digu zein den jokoaren araudia. Jokoaren arauak laburrak eta argiak izatea komeni da. Zenbat eta azalpen gutxiago hobe. Eta beste gauza bat: garrantzitsua da argi izatea arauak kontzeptu bat ikasteko bidea direla. Behin ulertu dugunean... jo ta hautsi... eta berriak frogatu eta frogatu, zeren "inprobisatzen irakastea gauzak bilatzen eta ulertzen ikastea da".

*Zuriñe Adrada*



# IKERTZE

# ETA ZER DA, BA, IKERTZE?

IKERTZE haurraren hezkuntza estetikoa lantzeko ikerketa-etxe bat da. Bertan hiru laborategi biltzen dira, bakoitzean mintzaira bat lantzen delarik: ADIERAZPEN DRAMATIKOA Enkarni Genua eta Nekane Elizagarateren eskutik; HOTS-MUSIKARENA Lutxi Mancisidor, Carolina Lopez Landatxe eta Inma Eizagirreren eskutik; eta azkenik, IKUSTEZKOA Juan Jose Aranguren eta Zuriñe Adradaren eskutik. Hiru horiez gainera, bada pedagogia sail bat, Susi Murielen ardurapean. Susi gizarte ikerkuntzan espezializaturiko pedagogoa da eta gure lana ebaluatzen laguntzen digu bere azterketa soziologikoen, estatistiken eta ikerketen bitartez.

IKERTZE mintzairak ikertzen ditugunok askotan nabaritu dugun premia bati erantzutzeko sortu zen. Gure jardunean, zenbat aldiz sartu ote dugu muturra beste arlo batzuetan, zenbat aldiz elkartu ote dira irudi bat eta hots bat, keinu bat eta marra bat, isilune bat eta paper zuri bat, kontzeptu bat eta hainbat mintzairatan itzultzeko aukera? Halaxe elkartu ginen hainbat mintzairatako zenbait "aditu" gure ametsak egia bihurtzeko eta MINTZAIRA KONPARATUAK IKERTZEKO.

Hala, bada, egitasmo bat prestatu genuen, sei urteko haurrentzat zena, hiru urteko iraupena izango zuena eta haurraren hezkuntza estetikorako balioko zuena baina beste ikuspegi batetik landuko zena, alegia, mintzaira konparatuen esperimentaziotik.

Halaxe sortu zen "IKERTZE egitasmoa" edo lehen bi urteetako egitasmoa. Garai horretan ikasle bakoitza bere irakaslearekin batera etortzen zen gure laborategietara, hilean behin, jolasaren bidez antzemateko espazioa utzi/bete, beterik/hutsik, hotsa/isiltasuna eta erritmoa bezalako kontzeptuak (eta mintzaira bakoitzean duten itzulpena). Lehen bi urte horiek, beraz, adierazpen erak aurkezteko bidea izango ziren. Horren bidez bi gauza lortzen dira: batetik mintzaira bakoitza ikertzea eta bere egitura, beharrizan eta aukerak aurkitzea eta, bestetik, mintzaira konparatuetan esperimentatzea,

teknika bera ez baita helburua izango, hiru laborategietan errepikatzen den kontzeptu jakin eta zehatz bat antzemateko bitartekoa baizik.

Metodoa ere berbera da. Esperimentazio aldi bakoitzak aurretik eta atzetik jabetze/behatze/entzute aldi bana dauka. Norberaren esperientzia beti hurkoaren esperientziaren berri izanez osatzen da. Hau da, gauzak egiten ezezik gauzak ikusten, entzuten, norbereganatzen eta hausnartzen ikasten da.

Eta hirugarren urtean zeri ekiten diogu?

Beti hartu dugu erabat aintzat haurraren sormen gaitasuna. Haurrak askatasun handiz probatu, erabili, antzeman eta jolasten du eta, pedagogiaren aldetik, emaitza kontuan hartzen ez badugu ere, zenbat eta zenbat bider harritu ote gara haien emaitzak ikusita! Hunkituta, itxurak egin nahian ibiltzen gara alderdi teknikoak baino aipatzen ez ditugula: hor ibiltzen gara "emozioa ez dela irakasten, sentitu baino" "polita eta itsusia gauza subjetiboak direla" eta horrelakoak esaka. Sormenerako gaitasun ikaragarri hori, ordea, hortxe dago.

Eta zergatik ez dugu guzti hori kanporatzen eta gizartearen zerbitzuan jartzen? Zergatik ez dizkiegu ikastetxeko ateak irekitzen eta aukerak ematen norbere herrian egiten diren ekintza kulturaletan parte har dezaten? Zergatik ezin dituzte haurrek lanak egin guretzat, adin nagusikoentzat, beste haur batzuentzat bakarrik egin beharrean? Zergatik ez ditugu kultura eta hezkuntza bide berean jartzen?

IKERTZEn horren alde egiten dugu eta, hala, berriki, Gipuzkoako 800 haurretik gora ibili dira buru belarri Donostiako Musika Hamabostaldian eta, ikuskizun horren barruan, Escudero maisu handiari eskaini zaion omenaldian. Egitasmo horren barruan, haurrek entzunaldiak, interpretazioak eta elaborazioak, partiturak eta eszenografiak, poesia eta sonematika, kartelgintza eta guretzat, nagusiontzat, prestaturiko biografia irudiduna egin dituzte. Lan horrek arrakasta osoa izan du eta erakusketa egin zenean, askok eta askok ezin zuten sinetsi "hura" haurrek egin zutela eta horixe, HORIXE, da gerta litekeenik ederrena.

LEHEN URRATSAK EMAN DITUGU. Egitasmo berriak bidean datoz. Eta gaur, gero eta gehiago gara gure herrian egiten diren ekintza kulturalen barruan haurrek duten zeregina aintzat hartzen dugunak.

*Zuriñe Adrada*



# IKERTZE ETA "ARTENIÑO" LABORATEGIAK

## LABORATEGI BISUALA




Hau eskema bat da. Eta hala izanik, globaltasunez eragiten du, begiratu batean. Mintzaira idatziaren bidez azaldu beharko dudan (ez dago beste erremediorik) ideia baten ikustezko errepresentazioa da. Baina behin nire kontua azaltzen dudanean, erreferentzi puntutzat balioko digu eta kontatu nahi dizuedan guztiaren irudia izango da.

Irudi horrek forma jakin bat du. Daukan horixe, ez beste bat. Luzenga, lerro batekoa, piramide antzekoa (eta bururatzen zaizuen edozein eitetakoa) izan zitekeen, baina bere forma biribilak (zirkunferentzia bat da) badu bere arrazoia. EZ da kasuala.

Berez, zirkunferentziak hainbat gauza esan diezazkiguke:

- Ez duela amaierarik.
- Hasiera geuk hauta dezakegula.
- Ziklikoa dela
- ...

... baina gauzak aurreratzen ari naiz.

Har dezagun KONTZEPTU hitza, bi aldiz

errepikatzen dena. Oro har, adimenean asmatzen edo eratzen den gauza baten irudipena edo gogoaren jakintza oro da kontzeptua. Irudien mintzairan oinarrizko kontzeptuak (nolabait deitzearren) funtsean bost dira:

FORMA
TAMAINUA
TESTURA
KOLOREA
ESPAZIOA

Kontzeptu horiek ezin ditugu ulertu, beste batzuetan oinarritzen ez bagara. Itxura batean, beste horiek komunagoak iruditzen zaizkigu beste mintzairetan eta gure eguneroko lexikoaren osagaiak baitira. Esate baterako: denok ulertzen dugu ERREPIKAPENA kontzeptua. Hala, "soinu" bat , "keinu" bat , "hitz" bat, "irudi" bat, "oinatz" bat eta abar errepika dezakegu. UNIFORMITATE kontzeptua ere erraz ulertzen dugu. Tira, ba, "oinatz" bat UNIFORMEKI ERREPIKATZEN badugu azal baten gainean, irudizko testura bat lortuko dugu. Zer gertatuko da denbora tarte batean "soinu" bat errepikatzen badut? edo keinu bat?

Baina gatozen berriro harira. Kontua da ikasi dugun kontzeptu batetik, "esperimentuan" ikasiko dugun beste baterako "saltoa" egin dezakegula (bai, ondo esan dut. Baina aurrerago azalduko dut kontu hau).

Zera galde diezaiokegu gure buruari: "baina, eta nola egiten da salto hori?" Pentsa dezagun "laborategi" hitzean. Esperimentuak egiteko leku bat besterik ez da, gertakari esperimentalak jazotzen diren lekua baino ez. Gauza esperimental



*Ikertze*



*Ikertze*

guztiak "esperientzian" oinarritzen dira eta esperientzia erabileraren erabileraz edo ibiliaren ibiliaz, praktikaz, norbereganatzen den gauza bat da:

Entzuten badut, ahaztu egiten dut.
Ikusten badut, gogoratzen dut.
Egiten badut, ulertu egiten dut.
Eta... nola egin?
Jolasten badut, parte hartzen dut.
Parte hartzen badut, egin egiten dut.
Egiten badut, ulertu egiten dut.

Jolas bakoitzak arau batzuk dauzka, hain zuzen ere, beste jolasekiko bereizten dituena horixe da. Jolasaren arauek esango digute zer nola erabili behar dugun MATERIAL bat eta, horren ondorioz, gauzak erabiltzeko teknika bat sortuko da. Behin baino sarriago galdetu digute: zergatik errepikatzen duzue hainbeste bider jolas arauen kontua? Ez al da egokiagoa bapatekotasun arau gabea?

Jolasak, lehen esan dugun bezala, ziurtatu egiten du parte hartzea eta jolasa definitzen eta arautzen duten erregelek denen berdintasuna ziurtatzen dute, denentzako "lege" baten aurrean. Eta, halaber, jarduteko orduan segurtasuna ematen dute. Arau horiei eskerrak, haurrak badaki zer egin behar duen. Arau horiek ezarriz gero, emaitza beti izango da balioduna.

Hala ere, jolas batek balio ez digunean, aspertu egiten gaitu (dagoeneko ez digu ezer irakasten) eta arauak apurtzeko gogoa izaten dugu, era berriak asmatzeko gogoa.

Hargatik, SORMENA ez da arau gabeko gauza. Aitzitik, haien iturritik edaten du. Haur sortzaile bat, pertsona sortzaile bat arau berriak asmatzen dituena da, jolas berrietara jolasten duena.

Horrelaxe definitzen dugu hasierako eskeman "esperientzia pertsonala" deitzen dugun hori.

"Bestearen esperientzia" zera baino ez da: guk baino lehenago "beste batzuk" bizi izan duten esperientzia pertsonala. Jakina, espezialistei, artistei buruz ari naiz.

Era honetara, esperimentazioaren gurpila osatzeko behaketa prozesua besterik ez zaigu falta.

Jarraian ikustezko laborategian jorratzen ditugun kontzeptuen eskema bat dakarkizuegu. Adi-adi begiratzen baduzue, zera ikusiko duzue, osagaiak halako moldez jarri ditugula non ez baitago hasiera eta amaiera jakinik. Osagai guztiak dira besteen oinarri, beraz, norberak hautatu behar du non hasi nahi duen.

Ekin lanari eta... ondo ibili!




*Juan José Aranguren*

# MUSIKAREN ETA HAURRAREN "LEHENA ETA ORAINA"

"Lehen lehena zen... eta orain beste garai bat da..." esaten zuen ipuin kontalari batek bere istorioei ekiten zienean. Eta neuk ere horrelaxe aurkeztu nahi dut haurrari eta musikari buruzko gogoeta.

Bai. Zeren...
LEHEN amatxok kantatzen zuen, oheak eta jatorduak prestatzen zituen bitartean.

Eta ORAIN irratiak, TBk, diskoek, kasetek... kantatzen dute etengabe etxeetan,. autoetan, autobusetan, dendetan...



*Ikertze*

LEHEN aitonak edozerekin egiten zuen ilobaren txintxirrina.

ORAIN plastikozko "txiribitxiak" eskegitzen dira sehaskan eta denek soinu berbera dute.

LEHEN kalean, tabernan, etxean... norbaiten urtebetetzea zenean, denek abesten zituzten aurrekoengandik ikasitako kantuak.

ORAIN, musika, hainbat hizkuntzatan ZORIONAK esateko besterik ez da; eta boladan dauden kantariak munduko bazter guztietan agertzen dira; eta guk entzun egin behar, zer esaten duten tutik ere ulertu ez arren.

LEHEN itsasoaren, kanpaien, txorien, trapusaltzaile, eztisaltzaile eta arrain-saltzailearen hotsa entzuten zen.

ORAIN kaleetan auto eta autobus hotsa besterik ez da entzuten, zarata besterik ez... eta etxeetan ere zarata ugari ateratzen duten makina ugari daude.



*Ikertze*

Eta LEHEN "belarri" ona zutenek baino ezin izaten zuten musika ikasi. Eta horretarako lehenengo solfeoa ikasi behar zen (hitzegiten ikasi aurretik aditza edo izenondoa, gramatika eta ortografia zer diren irakatsiko baligute bezala).

Eta ORAIN LOGSEk haurraren musika hezkuntza aipatzen duenean, SOINUA, MUGIMENDUA, ADIERAZPENA, BAPATEKOTASUNA, KOMUNIKAZIOA, GLOBALIZAZIOA... bezalako hitzak darabiltza. Eta irakasleak, maisu-maistrak irudimena, sormena, sentsibilizazioa eta, batez ere, JOLASTEKO GAITASUNA erabili beharko ditu; bai, JOLASTEKO GAITASUNA, entzutera jolastuz, hotsak ateratzera jolastuz, kantuak asmatzera jolastuz, musika-tresnak jotzera jolastuz...haurrak gauzak EGINEZ ikas dezan.

Ezaguna da haurtzaroko lehen urteak une erabakiorra direla nortasunaren garapenean. Haurrak zentzumenen bidez jarduteko, gauzak ikertzeko, erabiltzeko, imitatzeko eta asmatzeko duen bapateko erraztasunari ahalik eta probetxurik handiena atera behar zaio inguruan dugun "Soinu Unibertsoa"ren aurkikuntza planteatzerakoan. Unibertso horrek inguratu egiten gaitu eta haurrak eta gu (denok) bertan murgiltzen gara.

Hargatik, txikienekin musikan jardutea berriro hausnartu, gaurkotu (eta asmatu ere esango nuke) behar den kontua da, musikaren eta arte osoaren kontzeptuak eboluzionatu egin baitu. Orain ez da musika aipatzen "musikak" baino, ezta mintzaira musikala ere, hainbat kulturekin lotuta dauden "mintzaira musikalak" baino. Eta "LOGSE-HAURRA" kontuan hartzen badugu, erreforma honi dagokion pedagogia estreinatu gabe dagoela ikusiko dugu. Eta hemen gaude: pentsatzen, ikertzen, frogatzen, bila eta, batik bat, haurrari begira. Eta hari begira mugimendua, alaitasuna eta dinamismoa ikusten dugu. Gure proposamenek begiratu horri kasu egiten badiote haurrari bere burua aurkitzen lagunduko diogu, seguru eta zoriontsu sentitzen ere bai eta, hortik abiatuz gero, gauzak adierazteko, besteekin komunikatzeko aukera izango du.

*Luchy Mancisidor*

# LABORATEGI OZEN-MUSIKALA

Laborategi honetan aurkezten ditugun ekintzak, pentsatzekoa den bezala, beti egoten dira IKERTZEn erabiltzen diren hiru hizkuntzen elkarketaren ikuspegitik landuta eta haurrarengan oinarrizko bi dimentsio bultzatzeko helburuarekin egiten dira. Jakina, bi helburu horiek funtsezkoak eta komunak dira beste bi laborategietan ere. Gure MATERIAL nagusia HOTSA da. Hasiera batean ZARATAREN kontzeptua lantzen da eta gero musika osatzen duten soinuen multzoa.

Era horretara haurra bi gauza izango da:

EGILEA: bere gorputzarekin (ahotsarekin ere bai, jakina) "hotsak egitera" eta "hotsak eragitera" jolasten du, bakarrik, besteekin, asmatuz, bapatean boteaz, imitatuz; gauzez, soinuez, musikez eta abarrez baliatuz.

HARTZAILEA: entzuten den guztia, berak egiten dituen hotsak eta beste batzuek eginiko hotsmezuak entzutera, aditzera, adi egotera, ikertzera, aztertzera, erkatzera, hautatzera jolasten du.

A) ZARATA-HOTSA-MUSIKA aurkitzen ditugu:

- Inguruan (ikastolan, gelan, etxean, bidean...).



*Ikertze*

- Gure gorputza "tresnatzat" hartzean.

- Haurrek aurkitu, asmatu edo egiten dituzten OHEk (Objetu Hosdun Ezezaguna)

- Garai eta mota guztietako musikak, konposatzaile eta musika tresnen arabera soinu ezberdinak dituztenak.

Eta hainbeste ZARATA-HOTS-MUSIKA artean dihardugunez, beste hainbeste ISILTASUN aurkitzen ditugu, bata bestearen aldean oso ezberdinak direnak.

Hotsen Unibertso horri begira dagoen haurrak bere kabuz aurki dezake entzuten duen HORI, NOIZ entzuten duen, ZERGATIK entzuten duen, NOLA entzuten duen, e.a. Horrez gainera, muturra gehixeago sartuz, SOINUA(K) edo HOTSA(K) luzeak, laburrak, zoliak, baxuak, ahostunak, motelak... diren konturatuko da. Eta hau entzutearen pedagogia erraz eta sakon bat da, musikarekiko sentsibilizazioaz jabetzeko aldi honetan, FUNTSEZKOA dena gure ustez.

B) HOTSA-ZEINUA elkarketa oinarrizko beste urrats bat da aurrerago musikaren alfabetatzeari ekiteko haurrarekin.

Honelako ZEINUAK darabiltzagu:

- Keinuak

- Gorputzezkoak - Hitzak

HOTSA ESPAZIOAN KOKATZEN DA

- Irudizkoak: Formak, koloreak, testurak, puntuak, marrak...

HOTSA PAPEREAN KOKATZEN DA

Horrela, SOINUAK jakin eta ezagutzera jolasteaz gainera, gure PARTITURATXOAK egin ditzakegu, geure artean finkatzen ditugun jolas kode eta arauen bidez

C) Sarri-sarri darabilgu MAGNETOFOIA. Guk "HOTS-ARGAZKIAK" deritzegunak egin eta gordetzeko tresna ezin hobea da. Eta gainera, honetarako era badarabilgu:

- Lehengo, oraingo eta beste herri batzuetako musikak entzuteko.

- Musika tresnen soinua entzun eta bereizteko.

- Mugitu eta dantzan egiteko.

- Musikaz ipuinak edo istorioak egiteko.

Ba, guzti honekin pentsatuko duzuen moduan hots ugari izaten da gure laborategian; eta ekitaldi bakoitzean, haur talde bakoitzarekin SOINUA EZBERDINA izaten da. Eta horrek gero eta sendoagoa egiten du gure ustea: ESPERIMENTAZIO INDIBIDUALAREN beharra, baliagarritasuna eta eraginkortasuna (Begiratu "Metodologia apur bat" deritzon atala), musikaren kasuan guztiz beharrezkoa dena.

*Carolina López de Landatxu*
*Inmaculada Eizaguirre*
*Luchy Mancisidor*



# DRAMATIZAZIOA EDO ROL-JOLASAK. JOLAS SINBOLIKOA. JOLAS DRAMATIKOA

Ugariak dira dramatizazioaz diharduten pedagogi eta adierazpen liburuak; dramatizazioaz edo jolas dramatikoaz, edo jolas sinbolikoaz, edo rol-jolasaz; izan ere hitz guzti horiekin gauza bera adierazten baita eta askotan definizio zail samarrak ematen baitira, batzuetan azaltzeko nahiko gaitzak direnak. Eta hala ere, nolako kontu erraza den ekintza-jolas hau zer den ulertzea.

Ekintza-jolas honek itzelezko garrantzia dauka. Erreformak berak ere txoko bat eskaini dio Lehen Hezkuntzan (Hezkuntza Artistikoaren Arloan hain zuzen) eta haur Hezkuntzan ere ohorezko lekua dauka.

Horregatik, hori azaltzeko asmoarekin, biderik errazena eta eraginkorrena erabiliko dut: behaketarena. Haurrak jolasean daudela, begira jartzen bagara (jolasteko astia duten haurrak: judo, piano, ingelesa eta telebistako saioen artean, jolasteko tarteren bat ateratzen duten haurrei buruz ari gara), zera ikusiko dugu: berez, inork erakutsi gabe, pedagogoek *jolas dramatikoa* deritzogun horretara jolasten dutela. Ea, ikus dezagun:

3 urtetik 10 urtera arteko haur koadrila bat elkartzen da. Zertara jolastuko dugu? Planteatu egiten dute hori? Batek gauza bat proposatzen du, beste batek ez du nahi, batzuek onartu egiten dute.



*Ikertze*

Jolas dramatikoari EKITEN diote, ideiak plantetatuz. TALDEAN ARITZEAk dakartzan arazoak taldean KONPONTZEN hasten dira, hainbat joko AUKERA IMAJINATUZ.

Erabaki dute. Amatxoetara, munstroetara, dendarietara... jolastu behar dute eta bakoitzak jolasean zer den erabakitzen du: "Ni ama izango naiz" "Ez, neu izango naiz ama!"... eztabaidan jarraituko dute.

Dagoeneko hautatu dute GAIA eta PERTSONAIAK hautatzen ari dira. Berriro ere denok bat etortzea zeinen gaitza den ikusiko dute.

Jokoa hasi aurretik, prestakuntzak egin behar dira: "Hauxe izango da nire etxea", "Nik ohol hauekin egingo dut eta hemen egongo da atea" (hondartzan arratsalde batean, jende gutxi dagoenean; edo mendiko txabolak, eta abar).

Haurrak ESZENOGRAFIA prestatzen ari dira. Konponbide berriak aurkitzeko eta praktikan jartzeko asmoarekin, IRUDIMENA garatzen ari dira. Hau da, SORMENA erabiltzen ari dira.

Hasi da jolasa. Haurrek hautatu dituzten pertsonaien hitzegiteko, egiteko eta jokatzeko erak imitatzen dituzte. Maistrak batzuetan oihu ozenegiak egiten ditu, amak gosaria prestatzen du, aitak egunkaria irakurtzen du (noiz arte?!).

Ikusten den bezala, haurrek ondo BEHATU dute euren ingurua eta horrexegatik imitatzen dituzte BESTEEN ROLAK. EGOERA BERRIAK IMITATZEN DITUZTE eta IKASKUNTZA SOZIAL garrantzitsua egiten dute. Jolasean dihardutela, haurrek denetariko ADIERAZPEN ERAK (AHOZKOAK, GORPUTZEKOAK, KEINUENAK) lantzen dituzte.

Tira, ba, lagunak, hauxe da jolas dramatikoa. Hauxe da haurrekin landu behar duguna, batez ere, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzaren lehen urteetan. Eta horretarako jolasean daudenean duten espontanei-

tate eta plazer hori erabili eta bideratu behar dugu, jolas horrekin berez lortzen diren gaitasun guztiak indartzeko.

Jolasteko grina haurrek berez izango dute, beraz, gure lanak zimentarri erraza izango du. Zimentarri horren gainean eraikitzeko, ordea, gure aldetik ere ahalegintxoren bat egin beharko dugu, baina haurrek ere ikaragarri lagunduko digute.

*Enkarni Genua*



*Ikertze*

# ADIERAZPEN DRAMATIKOAREN LABORATEGIA

Adierazpen dramatikoko laborategian proposatzen ditugun ekintza-jolasak -IKERTZEn erabiltzen ditugun hiru hizkuntzen uztartzetik planteatuta- batik bat haurraren nortasunaren garapen integralean garrantzizkoak diren GAITASUN batzuk garatzeko asmoarekin jorratzen dira.

Erabiltzen ditugun teknikak antzerki teknikekin lotuta daude. Horrexegatik deritzo gure laborategiari adierazpen dramatikokoa. Hala ere, antzerki hutseko laborategiaren aldean baditu zenbait berezitasun, oinarrizkoak direnak.

Antzerkian azken emaitza da kontuan hartzen dena. Azken batean, haurrak jokalariak edo aktoreak dira eta epaimahai eskuzabala izango badute ere, epai bat emango duen jendaurrean emaitza-ikuskizun bat lortu behar dute, jendearen gustokoa izan behar dena.

Adierazpen dramatikoan, aldiz, prozesua da ardura duena. Haurrak formatzen ari diren pertsonak dira eta azken emaitza-ikuskizunik ez dagoenez, arreta eguneroko lanean jartzen da, haurra pertsona osoagoa eta adierazpen eta komunikazio ahalmen handiagoko pertsona egingo duten GAITASUNen garapenean.

Antzerkiko jardunak (antzerki emankizunak) lana behin eta berriro errepikatzea (entseiuak) dakar, azken emaitzan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko asmoarekin.

Adierazpen dramatikoan, jolasa bapatekotasunean oinarritzen da. Horri eskerrak, jolas dramatikoak beti izango dira ezberdinak, eta irudimena eta sormena indartzen dira.

Oro har, hauexek dira gure laborategian lantzen diren GAITASUNAK:

BEHAKETA
ZENTZUMENAK

Jolaserako proposamenak haurrak ezagutzen, ulertzen eta nahi dituen gauzetan oinarritzen dira. Beraz, Erreformak aldarrikatzen duen IKASKUNTZA ESANGURATSUAren ildotik abiatu gara. Baina proposamenek ez dute oinarrietan lo geratu behar, aitzitik, aurrerapausuak emanarazi behar dizkio haurrari.

ADIERAZPENA

Hainbat adierazpen era lantzen ditugu gure laborategian:
GORPUTZ-KEINUENA. Haurraren psikomotrizitatea jorratzen dugu baina urrats bat gehiago emanez, hau da, gorputzaren adierazpen gaitasuna ere lantzen dugu.
AHOZKOA. Pertsonen adierazpiderik arruntena bada ere, ezinbestekoa da hori ere jorratzea, ahalik eta gehien aberasteko.
IDATZIA. Haurrari idazteko ordua iristen zaionean ekiten diogu adierazpide hau indartzeko lanari.

KOMUNIKAZIOA

Adierazpenaren garapen hau ez dugu jorratzearren jorratzen. Jendartean bizi gara eta pertsonok derrigorrez elkar ulertu behar dugu. Beraz, komunikatzeko gaitasuna garatzea izango da haurrari jendartean gehiago eta hobeto integratzeko aukerak emango dizkiona.

IRUDIMENA
PENTSAERA
DIBERGENTEA

Garrantzi handia ematen zaio arlo honi gure laborategian. Kontua ez da izaten aurkezten zaizkien jolas-problemei eran-tzun berberak ematea. Aitzitik, haurren irudimena garatzen ahalegintzen gara eta horretarako pentsaera dibergentea bultzatzen dugu.

BEGIRUNEA

Begirunea ezinbesteko jokabidetzat jotzen dugu eta bultzatu egiten dugu:

**Norbere buruarekiko begirunea:** norbere gorputzaren eta haren adierazpideen estima.

**Besteekiko begirunea:** besteena entzuteko eta besteen lana onartzeko gaitasuna bultzatzen dugu.

**Joko arauekiko begirunea:** haurrek jabetu egin behar dute diziplina eta metodologia beharrezkoak direla bai banakako zereginetan eta bai taldeko lanetan.

Hala, inguruko munduaren barruan, jolastuz, gauzak imajinatu, sortu eta adierazi egiten dituztela, haurrak hazi egiten dira eta PERTSONA izateko gaitasuna indartu eta heldu egiten dute.

Horixe da gure lanaren oinarria. Ez gara xehetasunetan sartuko gure laborategia -eta beste edozeinberezia izan dadin lortzea baita gure erronka, prestatzen ditugun ekintza-jolasak hain ezberdinak izatea bata bestearen aldean, ezen guk geuk ere haietako bakoitzarekin ustekabea eta abentura bizitzea espero baitugu.

*Nekane Elizagarate - Enkarni Genua*

# IKUSPEGI PEDAGOGIKOAREN NAGUSITASUNA

Sarritan esaten dugu hezkuntza artistikoan benetan garrantzizkoa dena ez dela "lortutako emaitza" haurraren nortasuna garatuko duen lan prozesua bera baino. Eta honek galdera bat ekartzen dio gure buruari: nola jakingo dugu gure lanak haurraren nortasunaren garapena eragingo duen, lanean ez baditugu balore, jokaera... positiboak ikusten? Horren erantzuna bilatzeko txori begiz aztertu beharko ditugu gauzak, goitik behera.

- Hezkuntza artistikoan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren osotasunari begiratzea (edo haurrak ezagutu nahi duen errealitaterantz ematen dituen urratsen prozesua globaltasunez begiratzea).

Prozesu honek bere fruitua emango du baldin eta finkatzen diren harremanak eta sortzen diren esanahiak zabalak eta ugariak, denetarikoak, badira. Umeak haurtzaroan bereganatzen dituen ikaskuntzak onuragarriak izango dira bere garapenerako baldin eta ikaskuntza esanguratsuak badira. Ikaskuntza hauetarantz abiatzeko prozesuak zera eskatzen du: egiten diren ekintza eta lanek zentzu argia izan dezatela haurrarentzat.

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu honetan parte hartzen duten gizataldeei goitik begiratzea:

- Zenbateraino dira gai haurrak euren zentzumenekin gauzak adierazteko? Zer da eurentzat gaitzena eta zergatik? Ze beharrizan daukate? Zerez



Ikertze

gozatzen dute? Zertaz jabetzen dira?

- Zenbateraino dira irakasleak gai euren geletan hezkuntza artitiskoko lan jakin bat baliagarri egiteko?

- Zenbateraino arduratzen dira ikastetxeak mintzaira hauek duintasun osoarekin eman daitezen?

- Artearen hezkuntzako profesionalak garen aldetik prozesu hau "goitik" begiratzeak zera dakar, gure kasuan:

Arazo hauek ahalik eta modurik objetiboenean konpontzea (egiten dugun lanaren "tenperatura" neurtzeko teknika soziologikoez baliatuko gara) eta ahalik eta daturik gehien biltzea, hiru laborategietan eginiko prozesuak aztertu ahal izateko. Era horretara funtsezko hiru urrats ematen ditugu: gertaturikoaren ulermen objetiboa, emaitzaren balorazioa eta hausnarketarako eta, ondorioz, hobekuntzarako balioko diguten osagai konkretuen ekarpena.

Beharbada galdera bat erabiliko duzue buruan bueltaka: zertarako hausnarketa hori, zertarako balio dute, ba, datu horiek?

Gure ustez, ondorioak ateratzeko, gauzak hobetzeko eta gauza berriak egiteko modu bat da, hau da, gure gizartea aldatzen den bezain bizkor eboluzionatzen duen disziplina bateko (hezkuntza artistikoa) hezitzailea erne mantentzeko modu bat. Izan ere gizarte honek, bertan bizi garelako, gure ezagutza eta arreta intelektuala ezezik zientifikoa ere merezi du, hezkuntzan oinarrizkoak diren ikaskuntza egoerak esperimenta eta sor baitaitezke bere bitartez.

*Susi Muriel*
*Pedagogia Saila*



# BIBLIOGRAFIA

## IRUDIEI BURUZKOA

APARICI R., GARCIA MATILLA A.:
**Lectura de imágenes**
Ed. de la Torre. Madrid, 1989.

Hona hemen liburu bat, egileek argitasunaren eta erraztasunaren alde egin duten ahaleginaren erakusgarri dena. Liburu hau "Quirón" Hezkuntz Egitasmoaren barruan kokatu behar da eta era atsegin eta pedagogikoan sartzen gaitu irudiaren munduan. Bibliografia interesgarri eta zabal bat eskaintzen digu, jakinminaz daudenentzat (askorentzat, beraz) baliagarria izango dena, egitura argia, hiztegi erraza eta hizkera arina baitauka.

Liburu jostagarri eta atsegina da, beraz. Zenbaitetan, egileek arazoen sakontasuna alde batera utzi eta ikuspegi zabalagoaren alde egiten dute eta, era horretara, "aurkezpen liburu" on baten ezaugarri guztiak lortzen dituzte, gai honetan hasi nahi dutenentzat oso lan interesgarria delarik.

Liburu honen irakurketak, besteak beste, zera erakutsiko digu: irudiaren oinarrizko osagaiak, irudia ikusten dugunean gertatzen denari buruzko analisia, zuzenean eta zeharka zer ikusten dugun... Eta guzti hori gaur egungo publizitatearekin eta artearekin zerikusia duten adibideekin jazten dute. Eta are gehiago: gai hau geletan lantzeko proposamen praktiko eta argiak ere badakartza.

CASULA Tonino:
**Impara L'arte**
Editoriala Einaudi. Torino, 1977.

Egileak hamazazpi urteko gazte batentzat idatzi du liburua eta bertan (eta harexentzat berariaz) arte garaikidearen ikuspegi zabal bat ematen du: inpresionistetatik hasi, eta "ismo" guztietatik igaro ondoren, arte kontzeptualeraino, bakoitzaren oinarrizko teknika eta kontzeptuak erakutsiko ditu.

Liburu honek, helburuetan, Savaterrek UBIko gazteentzat idatzitakoa gogorarazten du, hau da, helburu didaktikoa da nagusitzen dena eta jakituria kulturala argitasunaren menean erabiliko du. Eskertzekoa da benetan honelako liburu bat izatea, gomendatu nahi denerako... batez ere artearen arloan, non askok eta askok hizkera erretoriko eta gogaikarria erabiltzen baitute hasi berriak direnentzat ere.

ECO, Humberto:
**Definición del arte**
Martínez Roca B, 1985.

Eta testu astun, irakurketa mantso eta ideia piloa dauzkan liburu bat nahi izanez gero, berriz, Umberto Ecoren liburu hau gomendatu beharko dugu. Bertan, artearen konplexutasuna eta eragiketak ulertzeko oinarrizko galderak aurkituko ditugu. Estiloa, materia, artearen formatibitatea, artelan baten kontenplazioa eta interpretazio prozesua, patua eta edertasuna eta beste hainbat gai jorratzen ditu Eco profesoreak, profesionaltasun txundigarriaz. Aipu pilo bat, beste egile batzuen iritzien analisiak, arte garaikidearen eginkizun pedagogikoaren azalpen harrigarri bat... azken batean, hotzean pentsatuz gero, diru apur baten truke gogoetaz eta estudioaz gozatzeko ordu batzuk eskaintzen dizkigun opari eder bat.

ARNHEIM, Rudolf:
**Arte y percepción visual**
Alianza Editorial. Madrid, 1980.

Liburu hau klasikoa da. Diseinadoreen, arkitektoen, arte irakasleen, soziologoen eta pertzepzioarekin berotuta dabiltzan guztien kontsulta liburua. Liburu teorikoa da baina era erraz eta argian idatzita dago, iparramariketan egiten dakiten era egoki horretan, askorik ez dakien irakurleak ere uler dezan. Funtsezko liburua da irudien irakurketan sakondu nahi dutenentzat, kontsulta eta berrirakurketarako beti eskueran izango duguna, jolasak asmatzeko eta zalantzak argitzeko orduan laguntza handikoa dena. Laburbilduz: edozeinek erosteko moduko liburu handi bat.

MUNARI Bruno:
**¿Cómo nacen los objetos?. Apuntes para una metodología proyectual.**

Sinestuko didazue kartesiar metodoa lapikokoa egiteko eragiketan ere aplika daitekeela? Horrela garrantzi gutxiago izango lukeela uste duzue? Arruntegi uztea litzateke? Edo ez litzateke, akaso, Descartesek planteatzen zuena ulertzeko era argi eta ikusgarri bat izango? Numari profesoreak arrazionalismoaren eta inteletualismoaren aitatzat jotzen dena (Descartes) hartu eta metodologia proiektual bat eskaini digu plater bat prestatzeko edo atrile bat, prefabrikatu bat, jolas didaktiko bat eta beste hainbeste gauza egiteko balio duena. Liburu atsegina da, itxurakoa, oso erabilgarria eta maitasunez idatzia. Niri neuri primeran etorri zitzaidan zenbait ideia ulertzeko eta, batez ere, nire lan metodoa ulertzeko eta definitzeko, zeren gure maisu kutunak esaten duen bezala "sormena ez da metodo gabeko inprobizazioa".

OTEIZA Jorge:
**Quosque Tandem**
Txertoa Argitaletxea.

Ezingo dugu aholkuen zerrenda honetatik kanpo utzi gure herrian sortu den estetika garaikidearen pentsalaririk handienetakoa.

Oteiza iskanbila piztailea da, gizon adoretsua eta artea beste era batean ulertu duena. Errusiar aitzindarien ondorengo honentzat, artista hezitzailea da, horregatik urrundu egiten da kontsumoko artetik, merkataritzan aberasten ari diren eliteetatik.

Bere ideiei jarraiki, eskultore egin ondoren, utzi egiten du eskulturgintza. Irakurketa geldo eta zukutsua duen liburu honetan azaltzen digu zergatik. Ez da erraza hasi berrientzat baina liluragarria da: filosofia, pedagogia, estetika, artea, antropologia... dena batera, bizitzan bezala. Eta zeinek dio (edo uste du) haurrei irakasteko ez dela jakin min handiko irakurlea izan behar?

# ADIERAZPEN DRAMATIKOARI BURUZKOA

SLADE Peter:
**Expresión dramática infantil**
Aula XXI. Educación Abierta. Santillana, 1978

Liburu hau klasikoa da adierazpen dramatikoaren arloan. Peter Sladek, 25 urtetan disziplina horretan jardun eta milaka haurrekin lanegin ondoren, bere jakituria eta bere ohar eta ondorio zorrotzak bildu ditu liburu honetan. Liburu hau haurren adierazpen dramatikoa ulertzeko beste era baten oinarria bihurtu da. Irakurketa astuna baina merezi duena.

RODARI Gianni:
**Gramática de la fantasía (Introducción al arte de contar historias)**
Ed. Reforma de la Escuela, 1973.

Liburu hau irakasle gehienek ezagutzen badute ere, ezin dugu aholkatu gabe utzi -gai honetan interesa izan dezaketenentzat- zeren oraindik ere arnas berria, sorpresak eta lanegiteko, sortzeko eta asmatzeko gogoa eman eta irribarrea eragiten baitigu. Ezinbestekoa oraindik ezagutzen ez dutenentzat eta urtean bi aldiz irakurri behar dena, besteontzat.

BARRET Gisele:
**Pedagogía de la expresión dramática**
Recherche de la Expresión, 1981.

Lan hau egileak Montrealeko Hezkuntz Zientzietako Fakultatean egin zuen zazpi urteko praktika eta bi urteko ikerlanaren emaitza izan da. Liburuak adierazpen dramatikoari buruzko proposamen nahiko berritzaileak dakartza, gainera esperientzia berrien abiapuntutzat aurkezten dituenak. Lehendik zertxobait dakitenentzat, liburu egokia.

MOTOS T., TEJEDO, F.:
**Prácticas de dramatización**
Ed. Humanitas, 1987.

Liburu honek bi zati ditu. Lehenengoan, egileak oinarri teoriko eta metodologiko labur eta argi bat eskaintzen digu, gaiari leku egokitik heltzen lagunduko diguna. Bigarrenean, dramatizazio praktiken bilduma eder bat eskaintzen digu, denetik dakarrena eta, hitzaurrean nahiko era barregarrian dioten bezala, "gaiaren inguruan agerturiko liburuetatik inspiratu gara". Erraz irakurtzekoa eta oso baliagarria gure ideiak gauzatzeko orduan.

GENUA Enkarni:
**Bene benetan... katua berbetan I eta II**
Elkar argitaletxea, 1992.

Eskolan dramatizazioa lantzeko liburu bat da hau. Irakasle eta haurrentzat prestatu da, hasieran adierazpen dramatikoaren fundamentazio oinarrien berri ematen baita laburki eta hortik aurrera haurrentzat prestaturiko lanak (jolas dramatikoen abiapuntuak izan daitezkeenak) agertzen baitira. Ekintza bakoitza irakasleak bertan behar izango dituen aholkuekin, helburuekin (gaitasunak) eta edukinekin batera dator. 6-7 urteko haurrentzat eta gai honetan esperientzia handirik ez duten irakasleentzat da, batik bat, egokia, horientzat oso lagungarria izan baitaiteke.

# MUSIKARI BURUZKOA

BARCONS SERRAT José:
**Andante con alegría**
Ed. ICCE. Madrid, 1992.

"Eskuliburu" txiki baina aberats honen aurkezpenean, egilea "grinaren profesionala" dela esaten digute; are gehiago, grina hori kutsakorra dela dio aurkezpen horrek. Eta halaxe da.

José Barconsek era erraz, argi eta eskematikoan batean aurkezten ditu zenbait ariketa, 3-4 urteko eta 7-8 urteko haurren GORPUTZAren eskema oinarritzat hartzen duten ariketak. Adin nagusikoak (guraso edo hezitzaileak) ideiak eta iradokizunak ezezik proposamen zehatzak ere aurkituko ditu eta proposamen horiek -helburu zehatzak dituztenak- txikienen jardun musikala antolatzeko aukera emango diete.

FORESTIER Richard
**Despertar al arte (Introducción al mundo sonoro)**
Ed. Médica y Técnica S.A. Barcelona, 1981.

KÜNTZEL-HANSEN:
**Educación musical precoz y estimulación auditiva.**
Ed. Médica y Técnica S.A. Barcelona, 1980.

"Ez dago musikarako senik ez duen haurrik", "Gutariko bakoitzak musikaltasunerako tximistatxo bat dauka bere baitan. Hori pizteko, musikarekiko sentimendua iratzartzea besterik ez da egin behar".

Horiexek dira bi argitarapen horietan esaten diren esaldietako batzuk. Eta haurrak hots-musikarako duen sena iratzarri, kilikatu edo kanporatzeko, hainbat ekintza, hots-musikazko jolas, proposamen eta abar egiten dizkigute era erraz batean azalduta eta norberak erraz-erraz egiteko moduan, gainera. Horrek hezitzaileari edo musika-animatzaileari ahalbideratzen dio aukera bilduma zabal, aberats eta interesgarri bat izatea eskueran, entzumena estimulatu, hezi eta garatzeko ariketak egiteko eta entzute aktiboa bultzatzeko, 3 urtetik 7ra arteko haurren etapa garrantzitsu horretan.

**L'environement sonore**
(1990)
**La musique a L'ecole Maternelle**
(1991)
"Conseil de la Musique de la Communauté Française de Belgique" elkarteak argitaratzen duen ORPHEE APPRENTI aldizkariaren bi monografiko dira.

Eskolan eginiko jarduna abiapuntutzat hartuta, musikaren pedagogiako zenbait aditu frantses eta belgikar entzutetsuk hainbat artikulu aurkezten dizkigute, oinarrizko gogoetak, 0-6 urteko haurren hots-musikaren ikaskuntzari buruzko joera berrienen inguruan.

Alderdi bat nabarmentzen dute bereziki: zen-

tzumenek berez duten globalizazio-indibidualizazio binomioa. Gure zentzumenetako bakoitza aberastu egiten da beste zentzumenetatik bereganatzen duenaz. Hala, gure begiek entzun ere egiten dute, gure belarriek ikusi ere egiten dute, eta abar. Eta, horretara, zentzumenen mundua ezagupen eta jakintza bide ikaragarria izango da, hortixik ezagutuko baitu haurrak bere ingurua, hotsei, irudiei, ukimenari eta abarri dagokienez. Material interesgarria, benetan.

ABADIE-GILLE
**L'enfant dans L'univers sonore**
Ed. Armand Colin. París, 1973.

Zaratak, hotsak, musikak, zentzumenak, entzutearen mekanika, entzutearen pedagogia, haur hots hartzailea, haur hots egilea... eta hamalau "fitxa tekniko" dira Abaddie eta Gillek idatzi duten liburu honetan biltzen dena. Liburu hau 1973an argitaratu bazen ere, derrigorrezko materiala da musika-hezitzailearentzat edo eskolaurreko irakaslearentzat. Liburuarekin batera disko txiki bat dator, gomendatzen diren hots-musiken adibideak errazago ulertzeko.

OHARRA: Bai bi aldizkariak eta bai liburu hau frantsesez argitaratu dira eta guk dakigula, behintzat, ez dira itzuli. Hala ere, irakurtzea gomendatzen dizuegu, darabilten hiztegia eta tipografia (fitxa teknikoak) dela eta, nahiko ondo uler baitaiteke hiztegi txiki bat lagun dugula.



GAUZAK...

TRASTEAK...

ZABORRA...

EZ DU BALIO...

ZABORTEGIA...

Konturatu zarete sekula egunero zenbat zabor "egiten" dugun? edo gure herrien inguruetan zenbat paper eta traste kilo pilatzen diren?

Denon onerako izango litzatekeen birziklapen egitasmorik aurrera ez ateratzea salatzen dugu, arrazoiarekin gainera. Baina "goikoek" arazo horri heltzen dioten bitartean, hemen doazkizue zenbait iradokizun, ZABORTEGIRA BOTATZEN DITUGUN GAUZAK sormen apur batez APROBETXATZEKO.

Hasteko, gelan hiru kaxa handi edukitzea ez zaigu txarto etorriko:

1. Lehena, denetik edukitzeko: yogur poteak, hainbat ontzi motaren plastikozko estalkiak, txanpu, garbikari eta abarren ontziak (etiketarik gabe), denetariko kaxak (botoienak eta), eta abar.

2. Bigarrena, neurri guztietako oihalak edukitzeko (jantzirik eta, ez, irudimena erabiltzeko aukera handirik ez dute ematen eta).

3. Hirugarrena, paper guztiak biltzeko: egunkariak, opari-paperak (opariak biltzeko erabiltzen ditugun paper zoragarri horiek) eta abar.

Guzti hori hartuta, honako joko hauetara jolas dezakegu:



*Ikertze*

# BIHUR DEZAKEGU

Lurrean eseriko gara denok, korruan. Erdian zenbait gauzaki utziko ditugu (lehen kaxetan gordetzeko aipatu ditugunetariko batzuk) eta banan-banan horietako bana hartu eta hala esango dugu:

"Hau yogur potea da, baina zera BIHUR DEZAKEGU... mmm, plast! ("magia egiten" lagunduko digun txaloa), **pailazo sudur** BIHUR DEZAKEGU". (Umeak yogur potea sudurrean ipiniko du eta dagoeneko itxuraldatu dugu gauzakia.)

"Hau yogur potea da, baina zera BIHUR DEZAKEGU... mmm, (txaloa!)**telefono** BIHUR DEZAKEGU". (Umeak potea belarrian ipiniko du, "bestaldekoa entzuteko".)

Ausartu zaitezte!, irudimena estimulatzen duen iokoa da eta.



*Ikertze*

## BIHUR GAITEZKE

Aurrekoan oinarrituriko jokoa da. Dagoeneko konturatu gara "BIHUR DEZAKEGU"ra jolasten gauza arrunt horiek geuk nahi duguna bihur daitezkeela. Ba, orain... jolastu egin behar dugu! Geu ere, lehen aipatu ditugun trapuekin beste norbait BIHUR GAITEZKE eta beste bat garenean, geuk nahi dugun moduan erabil ditzakegu ontzien kaxako gauzak (denda bat, etxe bat, kafetegi bat eta abar egiteko, esate baterako). Era honetara, haurren hastapenetan hain garrantzizkoa den rolen jokoa bultza daiteke.

## TXOTXONGILOAK

Era askotara egin daitezke txotxongiloak. Esate baterako, garbikarien ontzi zoragarri horiek (edo zaborrontzira botatzen dugun edozein gauza) erabil ditzakegu gorputza egiteko. Honako material hau erabil dezakegu:

- Garbikarien poteak (edo beste edozein pote).
- Trapu zatiak, paperak, botoiak eta abar.
- *Blutak* (plastilina eta txiklearen antzeko gauza bat, liburudendetan saltzen dutena).
- Hainbat testuratako paperak.

Zaborrezko gorputza hartu eta itxuraldatu egingo dugu. Blutakaz begiak eta ilea egingo dizkiogu. Gero traputxoren bat jantzi, sudurra egin...



*Ikertze*

## GELAKO PANPINA

Trapuzko panpina bat egingo dugu. Panpina egitea oso gaitza da umeentzat baina erraza, oso erraza zuek umeen aurrean egiteko. Kontua da eurek gozatu egiten dutela, lehenengo nola jaiotzen den ikusten eta gero harekin jolasten. Behar den materiala:

- Ur botila txiki bat, hutsik.
- Egunkari papera.
- Kolore bakarreko (zuria, arrosa, beltza...) trapu bat aurpegirako.
- Trapu koloretsu bat jantzirako.
- Botoiak, feldro edo oihal zatiak begiak eta ahoa egiteko.
- Artilea ilea egiteko.

Nola egin:

Botilaren ahoan egunkari paperezko bola bat sartuko dugu, panpinaren burua izango dena. Kolore bakarreko oihal batekin estaliko dugu eta botilaren sama edo lepoari lotuko diogu oihala artile gogor batez, burua eror ez dakion. Trapu koloretsua, jantzia, samara josiko dugu. Ondoren, osatu egingo dugu: begiak, ahoa, ilea, sonbreirua...

Izen bat jarri eta... ondo jolastu! Grabaturiko bi esaldi baino esaten ez dituzten andrakila horiek baino gehiago maiteko dute haurrek.

## IHAUTERIAK

Ihauteriak heltzen diren bakoitzean, zoratu beharrez ibiltzen gara denok gauzak josten edo haurren baino gurasoen pozerako gehiago izaten diren superjantziak erosten. Oraintxe bertan ikusiko dugun bezala, ez da dena diruaz erosten. Balio ez duen hori besterik ez dugu erabiliko gure mozorroa egiteko: paperak. Behar den materiala:

- Egunkari papera.
- Koloredun zeta-paperak.
- Kordelak, zeloa, kateorratzak...

Zeta paperez estalitako bi egunkari orri lotu gerrira. Beste zeta-paper zati bat ipini buruan, kordel batez lotuta eta... mozorrotuta gaude, horratio! Egun horretan, haurrei kolore bateko txandal bat ekartzeko jantzita agindu gero, asko itxura hobea izango dute. Zalantzak badituzue, lehenengo zeuok frogatu zeuon kontura, eta ikusiko duzue nolako gauza politak egin daitezkeen.



# HOTS-MUSIKA LABORATEGIA

## OHE-K EGITERA JOLASTEN

OHEk zer diren? Ba, OBJETU HOSDUN EZEZAGUNAK.

Non saltzen diren? IRUDIMENAREN dendetan. Zeren, berez, GAUZAK besterik ez dira. Esate baterako:

- Plastikozko botilak.
- Kartoi edo zurezko kutxak.
- Paper edo plastikozko poltsak.
- Soka mehe eta lodiak.
- Egunkariak, paperak.
- Yogur, natila, *Nocilla*... poteak.

Eta gero? ba, haurren adinaren arabera, zerbait egiteko edo keinuren bat imitatzeko gonbitea egingo diegu. Esate baterako:



*Ikertze*

Igurtzi - Atximurka egin - Putz egin - Astindu - Mugitu

Kolpea eman - Laztandu - Urratu - Hazka egin...

Eta nahi adina luzatu daiteke zerrenda eragin nahi ditugun hotsen arabera.

Eta horren ostean? ba, JOLASAK ANTOLATU BEHAR DIRA, zeren berez zein geuk eraginez sortzen den edozein hots, honelakoa izango da:

LUZEA EDO LABURRA; ZOLIA EDO BAXUA; OZENA

EDO MOTELA; BIZKORRA EDO GELDOA...

Eta haurrei zera adieraziko diegu (edo eurek adieraziko dute):

NOLA egin behar dugun.

ZENBAT ALDIZ.

BANAN-BANAN; TALDEKA; DENOK BATERA, eta abar.

Eta OHEk kantu bateko musika tresnatzat ere erabil ditzakegu; eta baita ENTZUN-ENTZUNera jolasteko ere (begiratu gabe zein OHEren hotsa den igartzea da ENTZUN-ENTZUN jolasa).

Eta aurrerago? ba, kodeak asmatuko ditugu geure partiturak egiteko.

Eta zer gehiago? ba, hots eta soinu sekuentzia guzti horiek grabatu egin daitezkeela eta ipuin bati hondoko hotsak jarri nahi dizkiogunean, ba, prest ditugula musikak.



*Ikertze*




**DOKUMENTAZIO ZENTRUA** (0-7 urte)

IRAKASLE ESKOLA
Escuela Universitaria del profesorado. Tel. 714157
ESKORIATZA (Gipuzkoa)